



Kanpomartxo euskal jaia
Erandiogoikoko zelaietan
ospatuko da datorren
apirilaren 19an ▶5

Danele Sarriugarte idazleak
Erraiak eleberriaz berba egin digu:
emakumearen ikuspuntutik, bikote
haustura mingarriaz... ▶16



hiruka Uribe Kostako astekaria



9. zenbakia

2015eko
martxoaren 20tik
martxoaren 25era arte

Ttipi-ttapa... badator!

Martxoaren 19tik 29ra bitartean
Urepeletik Bilborako bidea egingo du
Korrikaren 19. edizioak.

Gurera martxoaren 24an helduko
da Euskararen aldeko lasterketa;
Erandiora azkeneko egunean ere bai.

Hasiera, ibilbidea, ordutegia,
atzerriko babesak, ekitaldiak,
den-dena Sakonean atalean. ▶ 22-23



Getxoko proiektu handiak aurrera doaz:
beste fase batean sartu
dira Getxo Antzokia eta
Romo Kultur Etxea. ▶2

Iñaki San Juan Leioako
zinegotzi ohia inputatu
dute De Miguel auzian,
funts publikoak bidegabe
erabiltzea leporatuta. ▶6

Plentziako hoge
emakumeren historiak
eta bizimoduak jaso
dituzte, denak azken
150 urteotakoak. ▶ 8

Berbodromoa egingo dute hilaren 26an Leioan.
Saio bi egongo dira:
10:15ean eta 19:00etan;
izen-ematea zabalik. ▶12



Tiocfaidh ár lá

OIER ITURRALDE FERNANDEZ
«ATANO»
EH Bildu

Hamar urte baino ez nituen orduan

Hamar urte baino ez nituen harrapatu zutenean. Ume moko bat, azken finen.

Pasa ziren gero ikastolako garaiak. Pasa ziren nerabazaroko iskanbila eta buruhaustek, sasi-maitasun eta mozkorraldiak. Hamar urte gehiago.

Eta nor nintzelakoan, gazta-roaren garrarekin ekin nion kontuari. Pasa ziren beste hamar urte.

Nire buruari begiratzeko ez nola eta zaintzen hasi behar nuela esan zidatenen, burusoiltzen hasi nintzela ikusi nuen, ispi-luari begiratu nion egun batez. Hara! Eroritako ile bakoitzeko bizitzeko egun bat gehiago eman-go balidate!

Eta orduan konturatu nintzen eroritako ile bakoitzaren zentzuaz. Ile ale bakoitzak bazuen bere historia. Eta istorioa.

Kontzentrak, manifak, herri asanbladak, bilerak, grebak, piketeak, sabotaiak, bisitak, bilerak, txandak, parrandak, barreak, izerdiak, bilerak, pegadak, margoketak, haserreak, nekeak, besarkadak, bilerak... Eta urteak.

Baina nik, hamar urteko ume haren begiradarekin ekin nahi nion egunero bizitzari, itxaropenari eutsiz, kontu hari ekiteko aski arrazoi bazegoela sinetsita. Ezetz eta ezetz agintzen ziguten arren, guk baietz eta baietz, bazegoela aurrera egiterik, ile guztiak erorita ere ez genuela etsiko. Gaur arte.

Eta gaur, hamar urteko ume haren indar berarekin ekin nahi genioke bizitzari, zernahi posible dela sinetsita, hura borrokatzeko prest bagaude. Soildutako buruan adaxka gazteak sortzeraino.

Bidean eroritako ileei, agur eta ohore. Eta falta zaizkigun guztien alde, topa eta borroka.

24 urte luze iragan dira. Ongi etorri Patas! ◀

Getxo

Aurrera doaz Getxoko proiektu handiak

Getxo Antzokiaren eta Romo Kultur Etxearen obrak beste fase batean daude. Datorren ikasturtean abiatuko da Algortako Musika Eskola.

Udalak Getxo Antzokia-Musika Eskola eraikitzeko proiektuaren hurrengo fasea onartu du. Azken-aurreko eginbehar horretan, 4C2 fasea deritzona, sestra azpiko aretoen akaberak egingo dituzte. Lizitazio horretarako aurrekontua 4,63 milioi eurokoa izango da, eta lanak amaitzeko 47 asteko epea izango dute, aurreikusi dutenez.

Fase horretan egin beharreko akaberak maila tekniko handikoak direla azaldu dute arduradunek, hainbat espezialitate barne hartzen dituzte; batez ere, soinu-girotzearenak. Lan horiek askotariko erabilera aretoan eta Musika Eskolan egingo dituzte, besteak beste.

Getxoko PPK, proiektu horren aurrekontuaren diru-xahubidea salatu du. Azaldu dutenez, «estruktura egiteak bakarrik 40 milioi euroko kostua izan du», eta horri «eraikinen mantenua, iluminazioa, elektrizitatea, langileria eta obra egiteko kredituen ordainketa gehitu beharko zaizkio». Halaber, popularren kalkuluen arabera, antzokirako aurrekontuak 10 milioi euro egiten du gora urtero, «ez badugu kontrolik ezartzen, etorkizuneko antzoki hori getxoztarrontzako putzu beltza izango da, dirua galtzekoa».

Antzokiaren aurrekontua

Hasiera batean, Getxo Antzokia eraikitzeko aurrekontua 23 milioi eurokoa zen. Hala ere, gaur egunera arte 33 milioi euro inguru inbertitu direla salatu dute popularrek.


Faseka aztertuz gero, PPren arabera: 4A fasera arte egindako obrek 19,64 milioi euroko gastua ekarri dute. Horri 4B fasea gehitu behar zaio, 5,5 milioi euro; 4C1 fasea, 1,1 milioi euro; eta orain onartu berri dute 4C2 fasea, 4,63 milioi euro. Hala ere, gastuak ez lirateke horretan amaituko, Getxo Antzokia eraikitzeko lanak 2017ra arte luzatzea aurreikusten delako.

Gobernu Taldeak urtarrileko Osoko Bilkuran jakinarazi zuen Getxo Antzokiaren inaugurazioa bi urtez atzeratu-



Algortako Musika Eskola 2015-2016 ikasturtean hasiko da martxan.

Iritziak



BEÑAT NIKOLAS
Komertziala

Daramaten denbora eta diru guztiagaz ez dakit errentagarria izango den. Ez dakit beharrezkoak diren, bestelako beharrak baditugu.



ANDER DE LOS HEROS
Kimika-instalazioko operadorea

Antzokiaren proiektua polita zen hasieran, baina gehiegizkoa; herriko jendeak ez du gehiegi erabiliko.



OLATZ QUINTANILLA
Abokatua

Proiektua oso garrantzitsua da herriarentzat, baina jendea nekatuta dago eramandako gestioagaz.



XABAT ATXABAL
Ikaslea

Getxo Antzokia eta Romo Kultur Etxeko proiektu erraldoi horiek ez dira beharrezkoak herrian, nire ustez.

ko zutela. Hasiera batean, kulturgu-neak ateak aurten zabalduko zituela aurreikusten bazuten ere, obren abiadura ikusita 2017ra arte atzeratzeko beharra ikusi zuten. Halaber, eraikinarri finantzazio handiagoa eskaintzea erabaki zuten: 1.020.000 euro. Horren aurrean, Getxoko EH Bilduk Gobernu Taldearen jarrera salatu zuen, «beste departamentuetako diru-poltsetatik zein aurreko urteko soberakinetatik ateratako dirua» zela esanez.

Romo Kultur Etxea, amaitzen

Getxoko Gobernu Taldeak Romo Kultur Etxea eraikitzeko proiektuaren 2B fasea ere onartu du, azkena Itzabalzeta / Romo auzoko ekipamendu berria eraikitzeko prozesuan. Akordioaren arabera, fase horren lizitazioa onartu dute, 2,43 milioi euroko aurrekontuagaz. Hori aurrera eroateko lanak 49 astez luzatzea aurreikusi dute. Fase horretan eraikinen barrualdea egokitzeko lanak egingo dituzte.

Musika eskola aurten martxan

Aurreikuspenen arabera, 2015-2016 ikasturterako ipiniko dute martxan Algortako Musika Eskola. Daborduko barrualdeko akaberak egiteko lanak martxan dira, eta uda aldera amaituko dituztela uste dute udal agintariek. Udalak jakinarazi duenez, «500 bat ikaslek» ikasi ahalko dute bertan. Martxoaren 27ra arte dago zabalik hurrengo ikasturterako lekua gordetzeko epea, gaur egun ikasleak diren eta matricula berritu gura dutenentzat. ◀

Getxo

Gazteentzako tailerrak

Jarduerak doakoak dira eta sardina-lata batez argazki-kamera bat egiten ikasiko dute.

Martxo eta ekaina bitartean, Getxoko Udalak gazteei begirako jarduerak ugari antolatu ditu. Eskaintzetako berrikuntza nagusia sardina-lata batez argazki-kamera egiteko tailerra izango da. Egiteaz gainera, kamerak erabili egingo dituzte eta ateratako argazkiak erakusketa bat ere antolatuko dute.

Halaber, beste hiru ikastaro egingo dituzte: skate, masajea eta janariaren manipulazioa. Denetan, lehenengo argazki-kamera egiteko jarduerak izango da, 12 eta 17 urte arteko gazteei zuzenduta; martxoaren 13an eta 14an egin zituzten lehenengo saioak, baina



Skate, masaje eta janariaren manipulaziorako ikastaroak ere egingo dituzte. LATATXO

hilaren 21ean eta 28an ere egingo dituzte. Bigarrena, masajearena, hilaren 21ean eta 28an eskainiko dute, eta 18 eta 30 urte artekoentzat izango da. Hurrengoa, janariaren manipulazioarena, apirilaren 25ean egingo dute, aurreko adin-tarte bereko neska-mutilentzat;

eta azkena, skatean ibiltzen ikastekoa, apirilaren 20an, 22an, 27an, 29an eta maiatzaren 4an eta 6an egingo dute; 8 eta 15 urte artekoiei begirakoa da. Jarduera guztiak doakoak dira, eta aldeztu aurretik eman beharko da izena. ◀

Info+: www.getxo.net

Herrien arteko senidetzea sustatzeko martxa: sagardotegira

Beste behin, Algorta, Agurain, Baigorri, Ibarra, Itsasu, Lizarra eta Maule herrietako auzotarrak senidetzeko Euskal Herria eguna ospatuko dute, aurten Algortan, irailean. Hala ere, data horri begira berotze-lanak egin gura dituzte antolatzaileek, eta horretarako, txotx garaia aprobetxatuz, sagardotegira joateko eguna antolatu dute hilaren 21erako, zapatua. Egun horretan Hernaniko Elorrabi sagardotegira joango dira, eta nahi duen oro apuntatu ahal izango da. Horretarako, Algortako Abian kultur elkartearen tabernan eman beharko da izena. 2009an hasi ziren antolatzen aipaturako herrien arteko senidetzea sustatzeko jaialdiak. Daborduko aurtengoa Euskal Herria egunaren VI. ekitaldia izango da; apurka-apurka, herrien arteko harremanak sendotuz doaz. ◀

Izena emateko: Abian Kultur Elkartearen 650 18 95 12 telefono zenbakian



Getxon sinesten dugu

Bat eginda gure hiriaren garapenaren alde.

creemosengetxo.com

SabadellGuipuzcoano



Getxo

Beste 9 saltokik lortu dute «Komertzio Berdea»-ren zigilua

Udalerriko beste 9 saltokik «Komertzio Berdea»-ren zigilua lortu dute. Gehienak elikaduraren sektorekoak dira, eta zigilu horren bitartez «berdea, arduratsua eta jasangarria» izateko konpromisoa hartu dute. Dagoeneko Getxoko 145 saltokik egiten dute bat proiektuagaz. Horren bitartez, udalerriko merkatari txikiak garapen ekonomiko iraunkorra indartzea lortu gura dute. Ekimenak banakako aholkularitza eskaintzen die parte-hartzaileei energia-auditoria bat garatzeko eta bakoitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko. ◀



Beste parke batzuen antzeko ezaugarriak ditu.

Parke berria egin dute Maidaganen, guztien gozamenerako

Getxok (Andra Mari) beste eremu publiko bat du Maidaganen. Metroaren trenbidea lurperatu ostean, inguru horretan 4.008 metro koadroko parkea egin dute, eta joan den barikuan, hilak 13, inauguratu zuten. Parkeak 741.503,31 euroko aurrekontua izan du (BEZa barne), eta udalerriaren dauden zenbait plaza eta parkearen antzeko ezaugarriak ditu, besteak beste: jolaslekuak 1.500 metro koadro ditu eta egoteko esparruak ere egokitu dira, gazteei begirakoak batzuk, eta adin guztientzat beste batzuk. ◀

Udalerriko ekonomia garatzeko saioak

Jardunaldiakaz ekimen ekonomikoak garatzen eta dinamizatzen lagundu gura dute.

Eguaztenean, hilak 18, «Zerbitzuetako Hirietan Ekonomia Sustatzeko jardunaldiak; Getxo 2020» programari hasiera eman zioten. Bilbao metropoli 30 elkartearen laguntzagaz antolatu ditu Getxoko Udalak aipatutako jardunaldiak: proposamen zehatzak aurrera erotea dute helburu, udalerrirako ezarritako arlo estrategikoetan ekimen ekonomikoak garatzen eta dinamizatzen laguntzeko, berbarako: Sormenaren eta kulturaren industriak, Kirolaren teknologia eta industriak, Ongizatea eta turismo kulturala, eta Turismoa eta gizarte berrikuntza. Atzoko inaugurazioan Imanol Landa alkatea, Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapenerako sailburua eta Imanol Pradales Bizkaiko Ekonomia Sustapenerako diputatua egon ziren, besteak beste. Aurkezpenaren ondoren, egitaraua hau zen: Javier Puertas LKS enpresako partaideak «Getxoren posizioa eta arlo estrategikoen diagnostikoa» izeneko txostena aurkeztu; ondoren, «Hiriak eta sustapen ekonomikorako estrategiak» eztabaida-mahaia Imanol Landa alkatea moderatzaile; eta horren ostean, jardunaldiari amaiera emateko, «Zerbitzu-hiria. Espezializazio adimenduna. Hirien kasu praktikoak» eztabaidatzeko mahaingurua.

Hurrengo saioa hilaren 23an izango da, astelehenean. Orduan, «Berri-



Jardunaldiak hilaren 18an hasi ziren eta 28ra arte luzatuko dira.

kuntza soziala eta enpresa» gaiaren inguruan jardungo dute, hiru eztabaida-mahaitan: «Berrikuntza soziala, jardura ekonomikoaren eragile gisa»; «Berrikuntza sozialeko esperientzia praktikoak toki-mailan», horretan HIRUKA komunikazio-taldeko kudeatzaile Ziortza Merinok parte hartuko du; eta «Ekintzailatza soziala eta lanikidetzan oinarritutako ekonomia».

Martitzenean, hilak 24, berriz, «Enpresen garapena, kirolaren eta ongizatearen teknologien eta industrien esparruan» gaia jorratuko dute. Martxoaren 26an, eguenagaz, laugarren jardunaldia egingo dute: «Industria sortzaile eta kulturalak, eragile ekonomiko gisa» gaiaz berba egingo dute; eta azken saioan, «Kulturaren eta ongizatearen turismoaren indar enpresariala» izango da berbagaia.

Jardunaldiak doakoak izango dira,

eta esparru horietan behar egin gura duten Getxoko ekintzaileentzat edo daborduko lanean dabiltzanei zuzenduta daude. Saio denak goizez izango dira, 09:00etatik 14:00etara, Getxo Elkartegian (Areetako Ogoño kaleko 1 zenbakian).

Aniztasunaren balio erantsia

Bestalde, DELI Aniztasuna eta Tokiko Ekonomia proiektuaren mahainguraren ondorio garrantzitsuenetako batek aitoritzen du aniztasunak tokiko ekonomiari balio erantsia ematen diola. Proiektua Europako Kontseilua eta Migration Policy Group buru duen eta Integratorako Europako Funtzak finantzatzeko duen ekimena da; bertan 10 hirik parte hartzen dute: Viena, Munich, Reggio-Emilia, Dublin, Lisboa, Cartagena, Rotterdam, Lewisham (Londres), Bukarestek eta Getxok. ◀

Arantza Gutierrez izango da EH Bilduko zerrendaburua

Maiatzeko udal hauteskunderi begira, Arantza Gutierrez izango da Getxoko EH Bildu koalizioaren zerrendaburua. Hala berretsi zuten hilaren 13an egindako herri-bilgunean; horrez gainera, hauteskunde programan jarraitu beharreko puntu estrategikoak onartu zituzten. Hori guztia azaltzeko, agerraldi publikoa egingo dute martxoaren 21ean, zapatuan, Algortako San Nikolas enparantzan, 12:00etan. ◀



Arantza Gutierrezek lau urte egin ditu zinegotzi.

GUK-k 1.500 sinadura behar ditu hauteskundeetarako

GUK (Getxoko Udal Kandidatura) plataformak bere burua aurkeztu zuen hilaren 13an. Podemos-Ahal Dugu, Ezker Anitza-IU, EQUO eta Independentienteak talde politikoek plataforma hori babestu dute, «herriarren hautagaitza» delako. Bada, kandidatura hori osatzeko deia zabaldu dute, «bozketa bidez» aukeratuko dena. Dagoeneko oinarritzko puntuak osatu dituzte, eta herriarrakaz programa

osatzea dute helburu. «Nahi duena bilguneetara etor daiteke, eta programa osatzen lagundu». Hori osatzeaz gainera, plataformak 1.500 sinadura batu behar ditu hautagaitza aurkeztu ahal izateko. Kandidaturagaz «herriko egoera politikoa aldatu» gura dute; hala ere, «herriarren arabera» izango dela argi dute. Hilaren 27an egingo dute aurkezpena, Algortako Villamonte kultur etxean, 19:00etan. ◀

Erendio



EH Bilduk eskatu zuen trenbide-pasagunearen inguruko informazioa.

Asuan arriskua gutxituko da

Asuako trenbide-pasagunea kenduko dute datorren urtean, Jaurilaritzak jakinarazi duenez.

Urduizko trenbide-pasagunea 2016ko akabuan desagertuko da, bertako Metro Bilbaoren geltokia lurperatzeko lanen ondorioz. Halere, hori ez da Uribe Kostako biztanleek pairatzen duten trenbide-pasagune bakarra. Oraindino, Erandioko Asua auzoak badu trenbiderako pasagunerik, nahiz eta hortik oso tren gutxi ibili. Izan ere, Lutanako tailerrera doazenak eta probatzen diren tren berriak baino ez dabilta. Norbait harrapatzeko arriskua bada ere, oso txikia da.

Ostera, EAEko lineaz arduratzen den Euskal Trenbide Sareak (ETS) adierazi duenez Asuako trenbide-pasagunea 2016an kenduko du. Horrela

jakinarazi berri dio Ana Oregi Eusko Jaurilaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikarako sailburuak Eusko Legebiltzarrari, EH Bilduk egindako galderi erantzunez.

Hamabost mila euro

Oregik zabalduetako informazioaren arabera, trenbide-pasagunea desagerrarazteko ETSk 2010ean abiatu zuen plana berritu zuen pasa den otsailean, eta bertan jasotzen dira Asuan egiteko beharrak. Gaur egun, Asua-Erletxe errepideko hainbat etxebizitzarako sarbide bat dago, Sondika-Lutxana lineako trenbidea igaroz gero; baina pasaguneak ez du langarik.

Hilaren hasieran, ETSk sarbide hori lekuz aldatzeko proiektua zabaldu zuen jendaurrean. Erandioko Udalari ere eman dio horren berri, beharrezko izapideak egin ditzan. Lanok hilabete bitan egingo lirateke eta 15.000 euroko aurrekontua izango lukete. ◀

Kanpomartxorako, hilabete faltan

Hilabete eskas gelditzen da Kanpomartxo festak Erandiogoi-koko landak eta larreak har ditzan, eta euskaltzaleek jaiaz goza dezaten. Antolatzaile nagusia den Berbots Erandion Euskaraz taldeak abisua emanda zeukan aspaldi, sakelako egutegietan gorritz markatuta baitago data. Besteontzat balio dezala gogorapen xume hau: Kanpomartxo apirilaren 19ko domekan ospatuko da.

Erandioko hainbat auzotako base-rritarren antzinako festa Erandiogoi-koan egitea ez da kasualitate hutsa, Goi-Alde dantza taldeari bere mende erdiko ospakizunetan omenaldi txiki bat baino. Izan ere, Kanpomartxo eta Goi-Alde aspaldiko bidelagunak dira, hamarkadatan galduta egon zen euskal jai hori orain 21 urte berreskuratu zenetik, alegia.

Gauzak horrela, eta ospakizun bibrila kontuan hartuta, ez da arraroa bezperan kontzertua antolatu izana. Ruper Ordorika abeslariak pasa den Durangoko azokan aurkeztu zuen *Lurrean etzanda* disko berria aurkeztuko du zapatuan, 20:30etik aurrera. Domekari dagokionez, ohi legez hasiko da: goizeko 11:00etan, trikiti-doi-

nuez, Roberto Etxebarriaren eskutik. Ostean, dantzarien txanda izango da. 13:00etan, Mendibaiarte abesbatzak kantatuko du, Jone Uria eta Xabier Amuriza bertsolarien saioa hasi aurretik. Herri-bazkaria 14:30ak aldera dago aurreikusita.

Arrastiko plana 16:00etan abiatuko da, kuadrillen arteko herri-kirolen lehiagaz. Gero, 17:00etan, Gautxoriko dantzari trebeenetako batek bertarututakoak dantzan jarriko ditu, artez edo moldez baina dantzatuko dira.

Ume eta nagusientzako jarduerak

Neska-mutilek ere izango dute zertaz gozatu, eta arrastiko 17:00etan Irrien Lagunen ikuskizunean parte hartu ahal izango dute. Horiez gainera, egun osoan puzgarriak, arku-jaurtiketa, jolasak, tirolina eta tailerrak izango dira. Nagusiek ere trikitilariak, taloak eta txosna izango dituzte lagun.

Arrastiari akabua ipini eta gauari ondoetorria egiteko ardura Luhartz erromeria-taldeak izango du, ohi legez, dantzaldia animatuko duena.

Antolakuntzatik ohartarazi dute hobe izango dela Erandiobusa hartu eta autoa etxean uztea. ◀

Ana Crespo izango da EH Bildu koalizioaren alkategaia

Ana Isabel Crespo Hurtado izango da EH Bilduk Erandiorako aurkeztuko duen alkategaia. Crespok Osakidetzan egiten du lan, baina badauka eskarmentua: 1992an hasi zen HBko zinegotzi. Hurrengo hauteskunde bietan akta berretsi zuen, HB eta EHgaz. 2003 eta 2007an zerrendak ilegalizatu, eta ezin izan zuen bere burua aurkeztu. ◀



Hutsaren hurrena

JABI SANTA CRUZ AGIRRE
Irakaslea

Neurriak

Lehiak muga zehatzak ditu. Metaketa hutsez gizen duz gero, nahitaez argaldu behar. Ze erremedio! Sokatiran aritzen diren taldeei antzeko zerbait gertatzen zaie. Baskulatik pasatu eta ezarritako pisutik laupabost kilo daudela ikusita, komeriak hasten dira gehienezko pisura makurtzeko. Ahal bait arienen soberan dagoena bota behar: gernua, izerdia, odola..., edozer.

Lehio honek 625 karaktere omen dauzka gehienez ere. Hitz bat gora behera, hor nonbait errenditu behar taxuxko neurrian asmatzeko. Beste ezer baino lehen tamaina hartu behar zaio ontziari. Ontzia nolakoa, mamia halakoa. Hurrengoan gehiago. Hurrengoan zerbait. ◀

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

GetxoGas

Txartel hau aurkeztzen baduzu

%50eko deskontua

izango duzu zure autoaren garbiketari

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

Leioa

Enpresek e-postaz bidali ahal dizkiote fakturak Udalari

Urtarrilaren 15etik, Udalerako lan egiten duten enpresek fakturak elektronikoki igortzeko aukera daukate. Fakturak posta elektronikoz bidali behar dituzte. «Hortik, berehala erregistratuko ditugu, eta, ondoren, hornitzaileari mezua bidaliko diogu esanez zein zenbakirekin eta datarekin erregistratu den faktura bakoitza Leioako Udalaren Faktura Erregistro Bakarrean», azaldu dute herriko administrazioako arduradunek. Enpresa txikiei dagokienez, 5.000 eurotik beherako fakturak ez dituzte aurkeztu behar izango, Udalbatzak erabakita. ◀

info +: kontabilitatea@leioa.net

Interneta doan jarri gura dute eskualdeko hiru metro-geltokitan

Haririk gabeko telekomunikazio-zerbitzuak eskaini ohi ditu Leioako Wifinova enpresak. Oraingo honetan, doako wifia probatzen dabilta Metro Bilbao garraio-enpresako geltokietan. San Mames izan da horietan lehenengoa; eta otsailean, berbarako, 40.000 bisita ere izan ditu. Udarako, «edo lehenago», sistema beste hamar geltokitan prest egotea espero du Wifinovak. Tartean, Leioako, Areetako eta Algortako metro geltokietan egongo da 15 minutuz wifi bidez doan konektatzeko aukera. Denbora hori igarota, ordainpeko zerbitzua emango dute, «salneurri lehiakorrean». ◀



Hiru urtez izan zen Leioako gaztetxea Mendibile jauregia; gaur egun txakolinari begirako gunea da..



No: La campaña que derrocó a Pinochet eskainiko dute Leioan.

Txiki zein handientzako zinea egunotan Kultur Leioan

Egun hauetan, zineaz gozatzeko aukera edukiko dute ume zein nagusiek Kultur Leioan. Batetik, martxoaren 21ean eta 22an *Dragon Ball Z* marrazki bizidunen pelikula proiektatuko dute euskaraz. Saio biak 17:30ean izango dira eta sarrerak 3,5 euroan daude salgai. Bestalde, aipatutako egun bietan zein hilaren 23an *Siem-*

pre Alice filma ere eskainiko dute, 20:00etan hasita; sarrerak 4,5 euroan eros daitezke. Amaitzeko, hilaren 24an, *No: La campaña que derrocó a Pinochet* ikus-entzunezko lana emango dute Kultur Leioan, iluntzeko 20:00etan, 2,5 euroren truke; lan hori Oscar sarietan lehiatzeko izendatu zuten 2013an. ◀

Iñaki San Juan zinegotzi ohia inputatu dute De Miguel auzian

Mendibile jauregia herriarentzat aldarrikatu du EH Bilduk, «poltsikoak betetzeko negozio ilunak egiteko» baliatu zutelakoan.

Bost urteko ikerketaren ostean, De Miguel edo Miñao auzian 26 pertsona inputatu ditu Roberto Ramos Gasteizko Instrukzioko 4. zenbakiko Epaitegiko arduradunak, besteak beste, dirua zuritzea eta funts publikoak bidegabe erabiltzea leporatuta. Akusatuen artean da 2000tik 2004ra Leioako Kultura zinegotzia izandako Iñaki San Juan.

Horren gainean, EH Bilduk adierazi duenaren arabera, Mendibile jauregia eta kudeatzen zuen sozietatea ere bertan agertzen dira, Errexal (San Juanen enpresa) eta Katia Consultingegaz 180.000 euroko zerbitzuak kontratatutuztelakoan. Xabier Arzalluz EAJko presidente ohiaren semea, Asier Azalluz, zen garai hartako Mendibile jauregiaren arduraduna. Orain, ostera, Roberto Ramos epaileak artxibatu egin du Asier Arzallusen kontrako kausa, Miñau auzian.

Ustez «legez kanpoko komisioak» kobratzen zituzten Alfredo de Miguel Arabako EAJko «bigarren» eta foru diputatu ohiak eta Arabako hainbat jeltokidek. Epaileak, guztira, 11 delitu egotzi dizkie inputatuei: prebarkazioa, delituak jazartzeko beharrari

muzin egitea, funtzionario-eroskeria, influentzia-trafikoa, dirua zuritzea, funts publikoak bidegabe erabiltzea, administrazio publikoei iruzur egitea, funtzionario publikoek debekatuta dituzten negozio edo jarduerak egitea, agiri publikoak faltsutzea, Ogasun Publikoaren aurkako delituak eta konkurtso publikoetan prezioak eraldatzea. Autoak dioenaren arabera, sare horren helburua zen «Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) zuzendutako administrazioetan edo erakunde publikoetan legez kanpoko kontratuak edo esleipen publikoak lortzea». Hala ere, epailetak ez du oraindino datarik.

Mendibile jauregia

Piñosolo auzia zehazki aipatu barik, «berriro ere, Leioako EAJko kide bat ustelkeria kasu batean murgildurik» dagoela salatu du EH Bilduk. Hori gutxi balitz bezala, hiru urtez herriko gaztetxea izan zen Mendibile jauregia «negozio ilunak aurrera eramateko eremua» izan zela kritikatu du koalizio abertzaleak. Hala, elkarleen etxea eta Emakumeon Jabekuntza Eskola hartzeko Mendibilaren proposamena berretsi egin du EH Bilduk, «elkarrekin dituzten lokal eta baliabide faltari aurre egiteko». «Denborak Leioako gazteriari arrazoi eman dio. Izan ere, Mendibilek ez dauka kulturarik eta gutxi batzuen negozioa ezagutzera emateko baino ez da erabili», adierazi dute abertzaleek. «Mendibile herriarentzat!» gura dute. ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarteko Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez! Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

Sopela

Hasi esaera zaharrak ikasten!



Esaera Zaharren Txapelketak dozenaka euskaltzale biltzen ditu urtero.

Apirilaren 25ean egingo da Esaera Zaharren XXII. Txapelketa. Urtero lege, Sopelako AEK-k egun osoko egitaraua prestatu du; hasi prestatzen...

Pezeteagatik, durorik ez! Sopelako AEK-k iragarri du daborduko aurtengo Esaera Zaharren Txapelketa zein egunetan izango den: apirilaren 25a da aukeraturako data; denbora nahikoa, beraz, ikasten hasteko! Izena emateko epea, oster, apirilaren 20an amaituko da. Parte hartu gura duten lagunek bi, hiru edo lau laguneko taldeak osatu eta hamar euro ordaindu beharko dituzte. Antolakuntzari taldearen izena, kideren baten telefono-zenbakia edota posta elektronikoa helarazi beharko dizkiote e-postaz edo telefonoz.

Urtero lege, parte-hartzaileek 100 esaera zahar ikasi beharko dituzte apirilaren 25a baino lehenago. Izan ere, txapelketaren gakoa honakoa da: bertsolariak hainbat bertso botako dituzte, eta taldeek asmatu beharko dute zein esaera zaharrari dagokion bertso bakoitza. Hori bai, ez dago esaerak edozein modutara esaterik, esaera bakoitza zerrenda ofizialean agertzen diren modu berean (berbaz berba) adierazi beharra dago.

Txapelketak saio bi izango ditu: eguerdian kanporaketak izango dira, eta arrastian, finala. Iaz lege, bazkaria Ander Deuna ikastolan izango da (txartel bakoitzak 20 euro balio du). Arrastian, Nerea Ibarzabal eta Aitor Sarriegi izango dira bertsolari gonbidatuak. Eta gogoratu: *azeri zaharrak tranpan txiza!*

Info+: 618 574 445 / 695 774 015
jose-p@aek.org / aitor-f@aek.org

Abian da jaietako kartel-lehiaketa!

Sopela eta Larrabasterrako Jai Batzordea lanean hasi da daborduko, eta gonbidapen bi egin gura izan dituzte. Batetik, aurtengo jaietako kartel-lehiaketaren oinarriak zabaldu dituzte. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 12an amaituko da, eta parte-hartzaileek euren proposamenak A3 formatuan aurkeztu beharko dituzte (teknika eta kolorea egileak hautatuko du). Gaia librea izango da, baina herriko jaiakaz lotura izan beharko du. Irabazleak honako saria jasoko du trukean: 300 euro eta 200 euroko txartela Sopelako dendetan erosteko. Era

berean, herriko egilerik onenarentzat eta adin txikikoentzat ere sari bereziak egongo dira (hiru kategoria).

Bestetik, azken urteotan lege, herriko musika-taldeek jaietan jotzeko aukera izango dute. Horretarako, apirilaren 20a baino lehenago euren lanaren lagin bat (disco bat) eta biografia aurkeztu beharko dituzte Kurtzio kultur etxean. Parte hartzeko ezinbestekoa izango da gutxienez taldekide bat Sopelan erroldatuta egotea. Horrez gainera, jai-batzordeak euskararen erabilera ere kontuan hartuko du. ◀

Info+: www.sopela.eus

Ahal Dugu duintasun martxan egongo da

Sopelako Ahal Dugu zirkuluak sopeloztarrei dei egin die martxoaren 21ean Madrilan antolatu den Duintasunaren Martxan parte har dezaten. Ahal Duguko kideek adierazi dutenez, martxa horregaz herritarrek jasaten dituzten «eskubide politiko eta sozialak murrizketa larriak» salatuko dituzte: «Gobernuari jakinaraziko diogu gizarte-politikak aldatzea beharrezkoa dela. Herritarrei osasuna eta hezkuntza publikoa kentzen dien merkatuekonomiaren aurrean, gizartearen ongizatea lehenetsiko duen gobernu beharrezkoa da». Era berean, langabezia eta enplegu ez-egonkorrari aurre egiteko neurriak eskatu dituzte. ◀

Info+: joanalper@bizkaia.eus

EHbilgunea ireki dute Sabino Arana kalean

Egoitza berria ireki du Sopelako EH Bilduk Sabino Arana kaleko 9. zenbakian. Koalizio abertzaleko kideek aditzera eman dutenez, «herritarrek azken lau urteotan egindako lana eza-gutzeko aukera izango dute bertan». Horrez gainera, hauteskundeei begirako konpromisoen karta idazten hasi dira, eta horretarako sopeloztarrei euren ekarpenak egitea eskatu diete. Bilerak gaika banatu dituzte: martxoaren 26an, adibidez, komunikazioa, parte-hartzea, hautetsien soldatak, udaltzaingoa, enplegua eta turismoa izango dituzte berbagai. Hilaren 31n, berriz, feminismoa, internazionalismoa, lankidetz, sexu aniztasuna, kultur aniztasuna, eta abar. ◀

TABERNA Ekin
JATETXEA
CALLE BOLUE Nº4 TEL: 946080462

TABERNA Unai
JATETXEA
XILGORTAKO ETORBIDEA, 96
48991 GETXO (BIZKAIA)
TELF. 944661661
TABERNAUNAI@HOTMAIL.COM

DIDAK hamilton
IDIOMAS
Ingelesa, Frantsesa eta Alemana
- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
Inglaterra egonaldiak
Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 SOPELA
TE 94 676 30 12
info@didakhilton.com

Hartzaindegitik batxilergora arteko eskaintza
Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
i k a s t o l a

Plentzia

Herriko emakumeak gogoan



Liburua Plentziako Goñi Portalean lor daiteke, bana pertsona bakoitzeko.

Plentziako 20 emakumeren bizitzak bildu dituzte liburu batean, euskaraz eta gaztelaniaz.

Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren harira, *Azken 150 urteotako Plentziako emakumeak* liburu aurkeztu zuten hilaren 9an. Horretan, 20 emakumeren plentziarren historiak kontatzen dira, horien iragana berreskuratzeko eta emakumeen bizimodua, usadioak eta ohiturak aztertzeko. Lan horregaz, emakumeen «jakituriak eta produktu kulturalak identifikatu» gura izan di-

tuzte, azaldu dutenez «berezko ezau-garriengatik, etxeko lanak gehienbat, kultura ofizialarentzat ikusezinak izan direnak». Hori helburu, liburuan 20 emakume horien biografia laburrak jaso dituzte.

Isabel Zarauza Plentziako alkateak azaldu duenez, orokorrean historiaren ikerketak gizonezkoen ikuspuntuetatik egin izan dira, «horregatik zaila izaten da emakumezkoen memoria ezagutzea». «Análisi androzentrista horrek eraginda» emakumearen historia gizonezkoaren historian barnertzen dugula salatu du, eta era berean, «gizaki guztiena». *New Women History* lanari esker historiografia aldatu egin dela azaldu du Zarauzak, «historia bera kontatzeko eran eta benetako

protagonista guztien historiak berrikustean». Aldaketa horrek funtsezko eragina ekarri du, «bai gizartearen historian, bai feminismoan». Horren bitartez, gizartea modu orokorrean aztertzeak aukera dago, ez bakarrik elitea edo oligarkia. Hori hala, ikusgaitasuna eta protagonismoa ematen zaio boteretik urrun dagoen gizartearen zatiari, barbarako, emakumeari.

Liburuak Plentziako Goñi Portalean daude eskuragarri, eta azaldu dutenez, pertsona bakoitzeko ale bakarra emango dute. Halaber, liburuan agertzen ez diren emakumeren baten edo batzuren bizitzak ezagutzen badi-tuzte, haien berri emateko eskatu du Plentziako Udalak, hurrengo argitalpen batean jaso ahal izateko. ◀

Plentziako andreak

Mercedes Aginaga Uribe

1917-2006 Bidaia-iritsasontzietako zerbitzaria eta lizentzaitzailea

Vicenta Arteta Zabala

1897-1984 Emaginta

Aurora Aurea Garay

1912-2009 Ehungilea

Encarnacion Azpiazu

1909-2008 Maistra

Bareño Artaza ahizpak

Teresa 1910-1992 eta Mercedes 1915-1993 Maistrak

Camila Bilbao Atxarloza

1875-1963 Saltzaitzailea

Fullaondo ahizpak

Modesta 1893-1976, Rufina 1895-1974, Agustina 1897-1982, Felisa 1898-1966 eta Carmen 1904-1993 Negozio propioak ireki zituzten

Gabantxo Bilbao ahizpak

Genara 1902-1992 eta Clara 1910-1998 Arrain-saltzaitzaileak

Felipa Gobela Barrenetxea

1903-1998 Esne-saltzaitzailea

Mercedes Irala Barrenetxea

1885-1967 Plentziako tren-geltokiko denda eta taberna-jatetxearen jabea

Madariaga ahizpak

Charo eta Maria Jesus Lehenengo haur-tzaindegia zabaldu zuten Plentzian

Mercedes Manzanedo

1928 Mediku-laguntzaitzailea

Manuela Sistiaga Orozco

1901-1994 Etxekoandrea

Apirilaren 2an itxiko dute Plentziako metro-geltokia

Gero eta gutxiago falta da Plentziako metro-geltokia itxeko. Apirilaren 2tik aurrera, ez da Plentzia eta Sopela arteko metro zerbitzurik egongo, eta egun horretan bertan Plentziatik Larrabasterrara arteko bus-zerbitzua ipiniko dute, bost egunez. Ondoren, apirilaren 7tik aurrera, bus-zerbitzu hori Plentzia eta Sopela batuko ditu, Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko lanak irauten duten bitartean; obrok 18 hilabete iraungo dutela aurreikusi dute. Metroak dituen ordutegi eta maiztasun berberak izango ditu ordezkio autobus-zerbitzuak.

Urdulizko obra horiekaz, metroaren sareko azken trenbide-pasagunea kenduko dute, trenbideko 543 metro

lurperatu ondoren. Une honetan, Metro Bilbaoren ustiapenari dagozkion egokitzapenei ekin diete trenbidean bertan, katenarian, seinaleztapenean, komunikazioetan eta Aginte Mahai Nagusian.

Dagoeneko obrako materialak pila-tzeko eta obraren perimetroa hesitzeko lehenengo lanak abiarazi dituzte; ataza horiek egin ostean, lehenengo indusketa-lanei ekingo diete. Lanak egiteko 21 milioi euroko aurrekontua izango dute.

Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeak 6.000 metro koadrotik gorako aisialdirako gunea sortzea ekarriko du. Horrez gainera, lurpeko geltokia eraikiko dute, «fosferito» eta guzti. ◀

Begirale aritzeko lan-poltsa zabalduko du Udalak

Urtero lege, uda heltzeagaz batera, etxeko txikienei begirako udalekuak egingo dira Uribe Kostako hainbat herritan, tartean, Plentzian. Horietan beharrezkoak izango dira begiraleak, parte hartuko duten neska-mutilak zaintzeko eta aisiarako jarduerak aurrera erorazteko. Hori dela eta, beste urte batez, Udala udalerriko begiraleen zerrenda egiten hasi da PLENTZIA UDA 2015 programan lan egiteko.

Tokiko begirale horiek kontratatatu ahal izateko, Udalak lan-poltsan sartzeko deia egin die Plentziako gazteei. Hala, Udalak horretarako epea zabalduko du martxoaren 23an, astelehena, eta interesa dutenek hilaren 27ra arte,



Hilaren 27ra arte dago aukera.

barikua, izango dute izena emateko aukera. Horretarako, Goñi Portalera (Kale Barria 2) hurbildu beharra dago, aipatutako epean.

info +: www.plentzia.net
Izena emateko: Goñi Portala (Kale Barria 2)

Barrika

Eguneko zentroak

Bizkaiko Foru Aldundiak buruko urritasuna dutenei begirako 59 leku finantzatu ditu, hurrengo lau urteetan.

Eskualdeko eguneko atentzio zentroetan adimen-urritasuna dutenentzako 59 leku finantzatu ditu Bizkaiko Foru Aldundiak. Horretarako, 4,5 milioi euro bideratu ditu hurrengo lau urterako. Horretarako, Uribe Costa (Buruko urritasuna duten pertsonen babeserako elkarte – ADURCO) elkarteagaz sinatu du hitzarmena Bizkaiko Foru Aldundiak.

Aipatutako elkarteak hiru zentro kudeatzen ditu eskualdean: Barrikan, Gorliz eta Leioan. Lehenengoak, Barrikakoak, 26 leku ditu, eta horrek 2 milioi euro jasoko ditu. Gorlizko Andra



Eskualdeko 59 plaza finantzatu dituzte. BIZKAIKO FORU ALDUNDIA.

Mari eguneko zentroak, berriz, 20 leku ditu eta 1,5 milioi jasoko ditu. Horrez gainera, Uribe Costak Leioako Monte Ikea zentroan eskaintzen ditu bere zerbitzuak, eta horretan 13 leku hartzen ditu; hala, 1 milioi euro bideratu dituzte bertara.

Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak 280.000 euroko diru-laguntza emango dio APNABI Bizkaiko autismoa eta autismo-espektroaren nahasteak dituztenen gurasoen elkarteari. Gurasoen elkarte horrek eguneko zentro bat du Areetan. ◀

Zuhaitzak landatuko dituzte zapatuan Abaroa parkean

Etxeko txikiak euren gurasoak lagunduta arbolak landatzen ikas- teko aukera ezin hobea izango dute zapatuan, hilak 21, naturaren garrantzia eta ingurunearekiko errespetua bezalako kontzeptuak pausoz pauso barneratuz. Bada, beste urte batez, Zuhaitzaren Eguna ospatuko dute Barrikan. Hitzordua 11:00etan jarri dute, eta bi orduz, mota askotako arbolak landatuko dituzte udalerriko Abaroa parkean.

Antolatzaileek azaldu dutenez, familian parte hartzeko ekimena da, adin guztientzako bideratuta dagoena. Hala, tokira bertaratzen diren sendiek goiz ederra igaroko dute zuhaitzak landatzen eta ikasten. Halaber, jakinarazi dutenez, naturagaz lan egiten egon ostean, bildutako lagunak hamaiketako batez gozatzeko parada ere egongo da, jardunaldiari behar bezalako amaiera emateko. ◀

Info+: www.barrika.net

Gorliz

Langabeziari aurre egiteko hainbat plan abiatu dituzte herrian

Iaz 993 pertsona kontratatu zituzten, arlo publikoan zein pribatuan. Oraindik langabezia-tasa %12,99koa da.

Krisialdi ekonomikoa bizi dugun garaiotan, Gorlizko Udalak tokiko enplegua sustatzeko apustua egin du azken urteotan. Udalerriko langabezia tasa %12,99koa da, 2014ko datuen arabera; hau da, 5.695 biztanleko herri horrek 386 langabetu ditu. 2013ko datuak alderatuta, langabezia-tasa apur bat murritzuta, urte horretan zenbakiak %13,08ra heldu baitzen.

Martxan ipinitako neurrien artean, Gorlizlan izeneko plana azpimarratu beharra dago. Horregaz, enpresei herriko auzotarrak kontratatzeke diru-laguntzak eman zizkieten. Halaber, auzotar ekintzaileak diruz laguntzeko erabili zuten aipatutako programa. Guztira 60.000 euro bideratu zituzten plan horretara.

Horrez gainera, Udalak zazpi lagun

kontratatu ditu udalerrian martxan jarri diren hainbat obratan lan egiteko: behargin bat, Uresarantzako bidearen bihurtzea moldatzeko lanetarako; hiru langile, San Jose auzoko obretarako, eta beste hiru behargin, Iturgitxi kalekoetarako. Era berean, legegintzaldi honetan, Enplegu Publikoaren Eskaintza bi egin dituzte: udaltzain-plaza bat betetzeko eta brigadaren nagusia izateko, hain zuzen ere.

Azken lau urteotan Udalak, guztira, 120 gorliztar kontratatu ditu aldi baterako. Jakinarazi dutenez, gainera, neurri horregaz ia 40.000 euro aurreztu dituzte, aparteko orduak egin beharrean, behin-behineko kontratuak eta ordezkapenak egin dituztelako.

Udalak antolatutako ekimen horiez gainera, Eusko Jaurlaritzak berraktibazioarako abiatutako beste programa batez langabezia zeuden udalerriko zortzi lagun kontratatu dituzte, brigadan lan egiteko.

Guztira, udalerrian mila lagun baino gehiago kontratatu zituzten 2013an; iaz, berriz 993 kontratu zituzten, arlo pribatuan zein publikoan. ◀



Hilaren 27ra arte eman daiteke izena.

Udalekuetako izen-ematea zabalik

Urtero legeaz, Gorlizek Bizkaiko Foru Aldundiaren Udalekuak 2015 programa hartuko du. Horretan, 7 eta 13 urteko umeek 7 edo 10 eguneko oporrak egin ahal izango dituzte, adinaren arabera. Hilaren 27ra arte luzatu dute horietan izena emateko epea. ◀

Info+: www.bizkaia.net/udalekuak

hiruka

LAN-ESKAINNTZA

ADMINISTRARI-KOMERTZIALA BEHAR DUGU

hirukan publizitateaz arduratuko den komertzial baten bila gabiltza

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Lan komertzialean eskarmentua izatea
- Uribe Kosta komertzialki ezagutzea.
- Euskalduna izatea eta gazteleraz ondo moldatzea.
- Komunikazio gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa.
- Harremanetarako gaitasuna eta izaera dinamikoa
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Tokiko hedabideetan eskarmentua
- Uribe Kosta ondo ezagutzea
- Lan-taldean jarduteko gaitasuna

ESKAINNTZEN DA:

Proiektu berri eta erakargarri honetan parte hartzea.

Curriculumak posta elektronikoz bidali beharra dago: hirukakoop@hiruka.eus

Uribe Kosta



Besteak beste, historiako emakume aparten lana aldarrikatzen du Tribial Feministak. © IRONTEC

Emakumeen ekarpena, eskura

Tribial Feminista jokoa aurkeztu dute, telefonoan emakume garrantzitsuenek egindako lana ezagutzeko.

Pasa den martxoaren 6an, Irontec informatika enpresak, Uribe Kostako Mankomunitateak eta beste erakunde batzuek telefono mugikorretarako Tribial Feminista jokoa aplikazioa aurkeztu zuten Bilboko Euskararen Etxean. Bertan izan ziren, besteak beste, Izaskun Zubiaur Berangoko zinegotzia eta Iker Sagasti Ironteceko burua.

Jokoan, galdera eta erantzunen bidez, jendartearen eta ezagutzaren protagonista izan diren makina bat

emakumeren ekarpenak zein izan diren jakin ahal izango da, kirolean, arte eta literaturan, geografian, ikus-kizunetan, historian eta naturan. Era berean, parekidetasun-ezak gizonez-koei, eta, bereziki, emakumez-koei eragiten dien kaltea nabarmentzen da. *Gaztatxo*en orde, jokalariek ikur feministak irabaziko dituzte eta denbora mugatua izango dute jokoa bukatu ahal izateko. Aplikazioa 2010ean Uribe Kostako Mankomunitateak kalera-tutako mahai-jokoaren eguneraketa da. Tribial Feminista Android eta iOS sistemetako tabletetan eta telefono adimentsuetan instala daiteke eta eus-kara hutsez dago. Gainera, software librean oinarrituta dago. ◀

Info+: Bit.ly/tribial

Unibertsitatea

Unibertsitarioek fruta-arbolen baratzeak dastatuko dituzte

Zallako Frutazaintza Estazioan esperimentazioan dauden fruitu txikiak, ahabiak eta aroniak lagako dizkiote Leioako Ostalaritza Eskolari, gozogintzarako, marmeladak eta zukuak egiteko, eta, udaberri aldera, EHUn hedapenerako jardunaldi bat egiteko. Hori da fruta-arbolen baratze diziplinartekoaren egitasmoak aurtan emango duen lehenengo uztia. Arte Ederretako Fakultateak abiatu zuen ekimena, 2012-2013 ikasturtean, irakaskuntzarako eta hezkuntzarako diziplinarteko proiektu artistiko parte-hartzaile gisa. Pasa den irailean, Bizkaiko Foru Aldundiak, EHUK eta

Ostalaritza Eskolak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten eta pasa den astean ortuaren jarraipena egiteko batzordea osatu zuten. Gaur egun, baratzeak Irakasleen Unibertsitate Eskolaren aurreko zelaia zein Zallako instalazioak hartzen ditu, jarduera turistiko zein *Land Art* lege aldarrikatzen dute.

Irteerak Zallara

Campusean fruituen zaporeak dastatzeaz gainera, Zallako Frutazaintza Estazioarako zein Upeltegi Esperimentalarako bisita gidatuak egin ahal izango dituzte Leioa eta Erandioko campuseko ikasle eta irakasleek. ◀

Urduliz

Zalantzak argitzeko bulegoa, martxan

Auzotarrek metroko lanak ezagut ditzaten informazio bulegoa zabaldu du Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP)

Urdulizen metroa lurperatzeko obrei buruzko informazio-modulua ireki berri du BGPk egungo geltokitik gertu. Bulegoan ikusgai daude Metro Bilbaoko azken trenbide-pasagunea kendu eta lurpeko geltoki berria eraikitze proiektuaren nondik norakoak, agiri-sortak, planoak eta infografiak. Lanek 18 hilabeteko iraupena izango dute. Gainera, behargin bat auzotarren zalantzak argitzeaz gainera, obrari buruz egin ditzaketen erreklamazioak edota iradokizunak bideratzeaz arduratuko da. Informazio-gu-

nea hiru hilabetez egongo da zabalik, arratsalde, astelehenetik ostiralera. Bulego horretako erakusketa bisitateaz aparte, auzokideek beste bide batzuk izango dituzte Aita Gotzon kaleko pasagunea kentzeko proiektuaz informazioa jaso ahal izateko: telefonoa eta posta elektronikoa.

Eragin kaltegarriak

BGPk azaldu duenez, «metroa lurperatzeak ezinbestean eragingo dituen eragin kaltegarriak ahal den neurrian konpentsatzen» ahaleginduko da, «zeren eta obrok hirigunetik hurbil-hurbil egitekoak dira». Obrek, Plentziaren eta Sopelaren arteko tren-zerbitzua 18 hilabetez kentzea eragingo dute. Apiriletik aurrera ordeko autobus-zerbitzua jarriko da abian. ◀

Info+: 901 440 445 / urduliz@cotrabi.eus



Estalpeaz gain, argiztapena ere hobetuko dute.

Antsonekoa plazako gune estalia handituko dute

Hilabete honetan abiatuko dituzte Urdulizko Antsonekoa plazan umeentzako jolaslekua babesteko lanak. Udalak berak jakinarazi duenez, bertan hiru markesina jarriko dituzte, orain dauden ondoan, «umeei eta, batez ere, eurakaz dauden familiei oraingoa baino handiagoa den espazio estalia eskaintzeko, eroso egon daitezen eguraldia ona ez denean».

Gainera, ipar-mendebaldeko haizea saihesteko, plazan estalkia handituko da, ireki eta itxi ahal izango den estaltze-sistema mugikor baten bidez.

Aipatutako herri-lanek udalerriko Agenda 21 egitasmoan zenbait famili-

ak egindako eskaerari erantzungo diote. Era berean, jarraipena emango diote 2013ko akabuan egin ziren Antsonekoako jolaslekuaren lehen estaltze-beharrei.

Kontratazio-espedientean jasotzen denez, obra nagusia Azkayo SL enpresa algortarrak egingo du. Aurrekontuaren arabera, lan horien kostea 179.080 eurokoa izango da, BEZa barne. Halere, guztira, 225.000 euro bideratuko dira, estaltze-lanez gain argiztapena handitzeko beste obra txiki batzuk izango direlako, estalitako gune berriak argiteria izan dezan. ◀

Info+: Urduliz.eu



Errusia eta Alemaniako Ylatic Quintet bandak irabazi zuen iazko talde-lehiaketa. GETXOKO UDALA

Poloniarrek, aukera bi

Getxoko Jazz jaialdiko talde-lehiaketaren finala, Herbehera-Uruguai, Frantzia eta Poloniako lau taldek jokatu dute. Txapeldunek 3.750 euro jaso eta diskoa grabatuko dute zuzenean.

Getxoko Jazzaldiak aukeratu ditu bere 39. edizioko talde-lehiaketan joko duten lau banda finalistak. Aurten 18 herrialdeetako 55 taldek parte hartu dute aurreneko fasean, eta, horien artean, ondoko taldeak hautatu ditu epaimahaiak: EYM Trio (Frantzia), Federico Nathan Quinteto (Herbehera-U-

ruguai) eta Maciek Wojcieszuk Quintet eta Grzegorz Włodarczyk Qt. poloniarrek. Aukeratutako bandek uztailearen 1tik 4ra jardungo dute lehiaketako lehen saria eskuratzeko. Irabazleak berriro joko du azken egunean.

Txapeldunek 3.750 euro jasoko dituzte eta diskoa grabatuko dute zuzenean. Bigarren sariari 1.500 euro da-

gozkio, eta bakarlaririk onenari, 750 euro. Sariez gain, irabazleek Lovainako (Belgika) jazzaldian parte hartuko dute, Getxo Jazzek jaialdi horregaz duen akordioari esker.

Egitaraua

Uztailaren 1ean, eguaztena, Federico Nathan Quinteto taldeagaz abiatuko da lehiaketa. Taldearen ezaugarri nagusia da Uruguaiako herri-musikaren eta rock, funk eta jazzaren arteko nahasketa.

Biharamunean, Maciek Wojcieszuk Quintet poloniarrek joko dute. Taldeko liderrak bultzatuta sortu zen boskotea, eta horren ardatza rocka, erritmo zeltiarrek eta folk balkanikoa dira.

Irailaren 3an, Poloniako bigarren finalistak txanda izango da, Grzegorz Włodarczykena, alegia. Jatorri anitzeko musikariak (Polonia, Frantzia eta Portugal) batzen ditu bandak. 2014ko abenduan jarri zuten abian taldea *mainstream* delako musika moderno inprobisatua interpretatzeko asmoz.

Azkenik, lehiaketaren azken kontzertuan EYM trio arituko da. 2010ean sortu zuten taldea Frantziako jazz-eszenako hiru musikari gaztek. Jazz artista ospetsuen, Avishai Cohen eta Joshua Redman etorkizun handiko musikarien eta Balkanetako doinuen arteko nahasketa ditu oinarri Frantziako EYM hirukotearen lanak. ◀



Euskal Herriko Mugimendu Feministaren gaineko euskarazko lehen liburua izango da.

Argitaratu aurretik eros daiteke Gure Genealogia Feministak

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren inguruko euskarazko lehen liburua osatzeko egitasmoa abiarazi dute hainbat eragilek. Hain zuzen ere, proiektua diruz laguntzeko *crowdfunding* edo mezenasgo kanpaina zabaldu dute. Karrera webgunean Emagin elkarteak eta Euskal Herriko Bilgune Feministak. Horren bitartez, liburua aldeztu aurretik erosi ahal izango da 23 euroan. *Gure Genea-*

logia Feministak egitasmoa emakumeen eta feministen ekarpenak argira ekarri gura dituen proiektua da, eragile biek adierazi dutenez. Emaginek eta Bilgune Feministak elkarlanean egindako lana da. Nabarmendu dutenez, mugimendu feministak sortutako material grafikoa izango du 500 orritik gorako lanak, euskaraz lehendabiziko biderrez. ◀

info+: karena.eu

Khea Ziater taldearen Satisfaktion antzezlanak ikusgai hilaren 21ean Astrabuduan

Martxoaren 21ean, zapatua, *Satisfaktion* antzezlanak eskainiko du Astrabuduan, gaztelaniaz, Khea Ziater taldeak. Saioa 20:00etan izango da Josu Murueta kultur etxean. Sarrerei dagokienez, hamar egun lehenagotik daude salgai, euro biko, Josu Muruetan bertan eta Kultura Sailaren udaletxeko egoitzan.

Khea Ziater taldearen antzezlanak Krissen istorioa dauka berbera. Kriss eskarmentudun aktore bat da, urteak daroatza mota guztietako gunetan bere obrak antzeztzen. Baina, zuzenean arrakastara bideratuko zuen proiektu bati ezetza eman behar izango dio, haurdun dagoelako. Zuzendari ospetsu baten pelikulako protagonista izateari uko egin behar izango dio. Eszenatoki gainera bere berragertzearen eguna dauka Krissen, antzeztu gabe edo aktore barik gelditu zen prostitutaren pertsonaiari bizitza emanez. Ia ordubeteko iraupena dauka *Satisfaktion* antzezlanak. ◀

Ipuin-kontalariaren saioa euskaraz izango dute umeek, hilaren 27an Erandiogoikoan

Hil osoan Erandioko liburutegietan izan da Amaia Afanador ipuin-kontalaria. Hilaren 3an Altzagako bibliotekan eskaini zuen saioa, eta hilaren 11n, beste horrenbeste egin zuen Astrabuduan. Hala, martxoaren 27an, barikua, *Uxue eta Haimar elkarrekin* izenburuko istorioa azken aldiz antzeztuko du Afanadorrek Erandion. Oraingo honetan Erandiogoiko Gizarte Etxea aukeratu dute herriko liburutegietako arduradunek, 4 eta 8 urte bitarteko neska-mutilentzako emanaldia eskaintzeko. Ordua 19:00etan jarri dute.

Azaldu dutenez, Uxue eta Haimarrek «persona guztiak garrantzitsuak garela eta gura dugun guztia egin dezakegula transmitituko digute, gure arraza edo sexua kontuan hartu gabe». «Erabakia hartu eta saiatu besterik ez dugu egin behar. Azken finean, dena norberaren esku dago», gaineratu dute. Sarrera doan izango da ume zein gurasoentzat. ◀



URIBE KOSTA

Fracking-aren gainerako filmak ikusgai egunotan

Hego Euskal Herriko hainbat udalerrri igaro ostean, Uribe Kostara helduko da Ekologistak Martxan erakundeak antolatutako Ekozinemaldiaren 9. edizioa. Antolatzaileek azaldu dute-nez, aurtten aukeratu duten gaia petrolioari eta gasari oso lotuta dagoen erauzketa mota bat da, fracking-a, alegia. Hala, martxoaren 23an, aste-lehena, Leioan proiektatuko dute au-

keratutako filmen artean mugarritzat daukaten *Gasland* pelikularen bigarren zatia. Udondo gaztetxean izango da emanaldia, 19:00etan; eta hila-ren 25erako eta 26rako ere beste saio bi programatu dituzte leku berean. Algortari dagokionez, 23an eta 24an egingo dute Ekozinemaldia, 19:00etan, Villamonteko kultur etxe-an. Azkenik, 24an eta 26an EHUren

Leioako campuseko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean egingo dira ikusgai filmak, goizeko 11:00etatik aurrera.

Ekozinemaldia honen bitartez, instituzioen eta petrolio eta gas-enpre-sen arteko «sator-lanak» salatu gura ditu Ekologistak Martxan erakundeak. ▶

Info+: ekozinemaldia.blogspot.com.es



2015/03/19

Korrikaren hasiera

Urepelen (Nafarroa Beherea) hasiko da. 17:00

2015/03/21

Korrika eguna

Frontoi aurrean | Berango
Iailerrak, txistor-jana eta arropa-salmenta. 12:00

2015/03/22

Salam umeentzako antzez-lana

Santa Eugenia plaza | Getxo
12:00

2015/03/24

Korrika Uribe Kostan

Mungiatik helduko da Urdulizera 11:40 aldera eta Gortiz, Plentzia, Barrika, Sopela, Berango, Algorta, Itzubaltzeta / Romo, Leioa eta Erandio zeharkatuko ditu. Barakaldora 16:00ak aldera joango da, itsasadarra traineruz igaroz.

2015/03/24

Korrika bazkaria

Jubis taberna | Gortiz
15:00

2015/03/24

Salam antzez-lana

Telletxe plaza | Getxo
18:00

2015/03/24

Gibelurdinen kale-animazioa

San Nikolas plaza | Getxo
19:00

2015/03/28

Dantzaldia Tripilekurekin

Udaletxeko plaza | Sopela
12:30

2015/03/29

Korrika Erandion bueltan

Erandion bueltan izango dugu Korrika azken egunean, goizeko 07:00etan. San Ignazio sartuta Bilboko helmugarako bidea egiteko. 07:00

2015/03/29

Korrikaren bukaera

Eguerdiko aldera Bilbon bukatuko da euskararen aldeko lasterketa. Ekitaldiak egongo dira egun osoan.

Info+: www.korrika.eus

2015/03/20

Metal On Metal Fest

Sentinel rock aretoa | Erandio

Hiru taldek joko dute: Witchtower (Jaen), Evil Killer (Irueña) eta Nuclear Revenge (Gasteiz). Sarrera: 6 euro. 19:00

2015/03/20

Una noche filma

Andres Isasi musika-eskola | Getxo

Proiektzioa eta foruma egongo dira, 12 urteik gorakoentzat. Gazteleiaz izango da. Sarrera: 2,90 euro. 21:00

2015/03/22

Dantzaldia orkestrarekin

Altzagako azoka zaharra | Erandio

Los Palmeras taldeak joko du. Sarrera doan. 17:30

2015/03/22

Rio 2 animazio-zinea umeentzat

Berango Antzokia | Berango

Gaztelaniaz izango da. Sarrera doan. 18:00

2015/03/23

...

Gau internazionalista, Kalezulo gaztetxean

Ernaik gau internazionalista egingo du martxoaren 21ean Erandioko Kalezulo gaztetxean. Ekitaldiaz gainera, Pixontxis, Kodul (Herrialde Katalanak) eta Oliba Gorriak taldeek joko dute. Sarrera 5 euroan egongo da, ohiko lekuetan. ◀

Askapena edukiko du berbagai Meñakozek

Meñakoz Kultur Elkartek Askapena erakunde internazionalistaren inguruko berbaldia antolatu du martxoaren 25erako, eguaztena. Hitzordua Kurtzio kultur etxean jarri dute 19:00etan. Berbaldirako sarrera librea izango da. ◀

Berbodromoa egingo dute hilaren 26an

Martxoaren 26an euskaldun zahar eta berriak batuko dituzte Sakonetan, euskaraz berba egin ahal izateko. Bi saio egongo dira: 10:15ean eta 19:00etan. Aurrefik izena eman beharra dago. ◀

Info+: berbaldun.leioa@gmail.com / 688 850 129



Harlock-en abenturak Urdulizen

Leiji Matsumotok sortutako manga pertsonaian oinarrituta, Shinji Arakamik zuzendutako *Capitan Harlock* filma ikusgai egongo da Urdulizen. Espazio-ontzian doan pirata dugu Harlock. Galaxia osoaren jabe izan gura du. Gizateria mendean duen Gaia koalizioa da arerio nagusia. ◀

Noiz: Martxoak 21, zapatua. 18:00
Non: Urdulizko kultur etxea
Sarrera: 3,50 euro
7 urteik gorakoentzat

Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Zuhaitz Eguna

Abaroa parkea | Barrika
Zuhaitzak landatzea familian.
11:00

La caza filma

Berango Antzokia | Berango
12 urteik gorakoentzat.
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera doan.
18:00

Alex Claveroren bakarrizetak
Urdulizko kultur etxea | Urduliz
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera: 6 euro.
21:00

Dragon Ball Z filma
Kultur Leioa | Leioa
Hilaren 22an ere egongo da ikusgai.
Euskaraz izango da.
Sarrera: 3,50 euro.
17:30

La folia kontzertu klasikoa
Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Sevillako Orkestra Barroko ospetsuko bakarlarien sekotea (biolin, biolontxelo, kontrabaxu, klabezin eta tiorba).
Sarrera: 10 euro.
19:30

Siempre Alice filma
Kultur Leioa | Leioa
Hilaren 22an eta 23an ere egongo da ikusgai.
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera: 4,50 euro (ikusleen eguna: 3,50 euro).
20:00

XXVIII. Mendi Martxa
Udaletxea | Plentzia
08:30 Ibilbide luzea
10:00 Ibilbide laburra

Turbo filma
Andres Isasi musika-eskola | Getxo
Adin guztientzat.
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera: 2,10 euro
17:00

proiektuaren aurkezpena
Algortako gaztelekua | Getxo
14. eta 24. urte bitarteko neska-mutilentzat.
Informazio gehiago: gaztebulegoa@getxo.net
helbidean eta 665 760 464 telefono zenbakian.
19:00

Markos Basterretxearen Pinturak eta marrazkiak erakusketa
Algortako kultur etxea | Getxo
Sarrera doan.
11:00-14:00 eta 18:00-21:30 asteleheneetik barikura, eta 10:00-13:00 zapatuetan.

Medikuntzaren gaineko berbaldia
Nagusien etxea | Sopela
Hizlaria Sonia Diaz de la Sierra medikua izango da. Solasaldiaren ostean, txokolatea eta bizkotxoak egongo dira.
Sarrera doan.
18:00

No: La campaña que derroca a Pinochet filma
Kultur Leioa | Leioa
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera: 2,50 euro.
20:00

El aliento del dinosaurio liburuen aurkezpena
Algortako kultur etxea | Getxo
Mabel Andreuk idatzi du.
Sarrera doan, edukiera betetzeraino.
19:00

Literatur solasaldia
Algortako Kasinoa | Getxo
Miren Agur Meaberen *Un ojo de cristal* liburuari buruzko solasaldia.
Sarrera doan, edukiera betetzeraino.
19:45

Jazz Ciudad taldearen kontzertua
Glass kafetegia | Getxo
Getxo Zuzenean zikloaren barruan.
Sarrera doan.
20:00



Andy Hansonen dosia

JON
URRAZA INTXAUSTI
Aktorea

Irudimenezko ogibide *cool* zinematografikoa

Astelehena eguzkitan, baina ez erratu, lanean nabil... Zutabegilea naiz. Pelikuletan protagonistaren diru-sarrerak eta *loft* ederra justifikatzeko, asmatutako ogibide *cool* kondairaz bete. Minutuko sekuentzia bat erredakzioan, nagusiarekin maitasun-gorrotzko liskarra «ez dakit zergatik ordaintzen dizudan!», pastako betaurrekoak jantzi, barruko sormen-sumendia teklatuan arineketan isuri, «honexegatik.» *enter* sakatu eta gainontzeko metraje guztia jairik jai eta oherik ohe ibili. Hau dun hau bizibide gogorra Carrie Bradshaw, jaietako zinegotziarenaren parekoa, 24 ordu egunean lanerako ikertzen.

Orain inportantea naiz, herria nire zutabean idatziko dudaren zain dago. Ez da gaia, gu gara, gure iritzi, irudimen, ironia fin eta malaletxearen laguntzaz, irakurleek komuneko lanak egiten dituzte. Bifidusa baino eraginkorragoak gara eta gainera birziklagarriak, irakurri ostean txakurrarena jasotzeko ere balio dugu.

Niri txarrik gertatuz gero (egurra ikutu), Bilboko hautesiek kontzentrazio isila egingo lukete, Charlie Hebdoak hil zituztenean bezala. Tarajalen itoarazitako azpisaharrek, Palestinako hondartzan misilkatutako umeek, lepoa moztu zieten egiptoarrek eta mundu zabaleko herriar bonbardatuek ez zuten merezi izan udal kontzentrazio-rik, Obamak ez baitzuten trending topic bihurtu. Baina ni Charlie Hebdoen ogibide kidea naiz orain, nigatik kontzentratuko lirakeke.

Zutabegile izatea status bat da, Don Draper-i bezala pentsatzeagatik ordaintzen digute, gure pentsatzeko besaulkian te bat hartuta sortutako magiagatik. Beraz, kalean kasu egiten ez badizuet, etzazue kontutan hartu, zutabegilea naiz, lanean nabil... Pentsatzen nabil. ◀

Banda eta DJ txapelketa antolatu dute Barrikan



Musikari bat nahasketa-mahaia erabiltzen. @NICOR

Barrika On Air txapelketaren finala ekainaren 20an izango da, San Juan jaien barruan. Bertan aukeratuko dituzte bandarik eta DJrik onenak. Gainera, finaleko ikusleek erabakiko dute zuzeneko onena zein izan den.

Banda eta DJ lehiaketa antolatu dute lehendabiziko aldiz Letamina diskoetxeak, Golfo Norte eta Milagros tabernek, Barrikako Jai Batzordeak eta Udalak. Horrenbestez, maiatzaren 4ra arte edukiko dute izena emateko aukera I. Barrika On Air sariketan parte

hartu gura duten guztiek. Lehenengo fasean, maiatzaren 20rako, lau banda eta lau disko-jartzaile onenak aukeratuko ditu epaimahaiak, jasotako izen-emate guztien artean. Antolatzaileek azaldu dutenez, zortzi horiek Barrikako San Juan jaietako egitarauaren barruan egingo den finalera igaroko

dira. Ekainaren 20an izango da saio erabakigarria, finala, hain zuzen ere.

Diruaz (500 eta 150 euro) gainera, bonoak musika-produktuetan, kanten grabazioak eta zuzenean jotzeko aukerak ere egongo dira sarien artean. Finaleko ikusleek, gainera, hautatu egingo dituzte talderik edo disko-jartzailerik onena, eta 150 euroko saria jasoko du. Azkenik, banda eta DJ irabazleek gehienez ordu erdiz joko dute zuzenean, ekainaren 20ko musika-talde nagusiaren aurretik. ◀

Info+: liburutegia@barrika.net / 946 775 163

Laguntzaileen bila dabil Getxoko Gure Esku Dago

Argazkigintza, bideogintza edo kartelgintza gustuko duten lagun denei dei berezia egin die Getxoko Gure Esku Dago taldeak. Izan ere, laguntzaile-talde bat osatu gura dute antolatzen dituzten ekimenak iragartzeko kartelak, euren jarduerari buruzko bideoak edo ekitaldietako argazkiak egin ditzaketen pertsonakaz. «Horietakoa bazara, leku bat duzu Gure Esku Dago Getxon. Ez dizugu eskatzen bileretan eta parte hartzea (nahiz eta horretara ere gonbidatzen zaitugun), baizik eta jarduera horietako bat egin behar dugunean, guri laguntzea», adierazi dute aipatutako ekimenetik. Aipatu jarduerak gustuko

dituzten eta laguntzeko prest dauden lagun guztiak eurakaz harremanetan jartzera deitu dituzte, «konbentzitutak baikaude asko zaretela jarduera horretan ere lagundu ahal diguzuenak».

Beste alde batetik, aurtengo ekimenen artean, hauteskontzi erraldoiak oihalez jantziko dituzte ekainaren 21ean Euskal Herriko hiriburu eta futbol-zelaietan, tartean San Mamesen, Bilbon. Hala, herri bakoitzean jostun kopuru bat lortzea izango da helburua. Horretarako tutore-kopuru zehatza izendatu dute herri bakoitzean, eta horietako bakoitzak 20 lagun batu beharko ditu oihalez-zatia osatzeko. ◀

Info+: gureeskudagogetxo@gmail.com

Errefuxiatu poetiko baten bizipenak taularatuko dituzte hilaren 22an Sopelan

Martxoaren 22an, domeka, *Refugee Poetique* (errefuxiatu poetikoa) izenburuko haurrentzako ikuskizuna eskainiko du Sopelan Claire Ducreux dantzariak eta bere konpainiak. Emanaldia 18:00etan izango da Kurtzio kultur etxean, eta sarrerak 3 euroan egongo dira haurrentzat, eta 5 euroan, helduentzat. Dantza eta antzerki bisuala batzen ditu familia osoarentzat egokia den ikuskizun horrek: Eskale batek parke bat bere aterpetxe bihurtu du; bi hesi, bere ametsaren ate; zubi bat itsasontzi bilakatu du eta eskultura bat, bere bidaide. Dantza, antzerkia, clown, mimoa... Berbabako ikuskizuna da. ◀

«Gauzak ederrago jartzen ditugu askotan. Hori izan daiteke benetako lotsa»

Danele Sarriugarte Mochales (Elgoibar, 1989) idazlea *Erraiak* eleberriaren gainean berbetan izan dugu Algortan, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoak (UKITX) gonbidatuta. Itzultzailea ere bada, eta gidari-lanak egiten ditu Sopelako irakurle-klubean. Sarriugarteren lehenengo nobelan andre baten kontakizuna aurkituko dugu, bikote-haustura mingarri bat izan duen unean. Hala ere, idazleak dioenez, bakoitzak irakurri beharko du eleberria ikuspuntu propioa eraikitzeko.



KEPA UGARTE MARTIARENA

Zein da *Erraiak* eleberriaren abiapuntua?

Erraiak eleberriak bikote-haustura mingarri bat du abiapuntu. Bikote baten bukaera erabili nuen, ahal den neurrian, krisi egoera bat irudikatzeko. Iruditu zitzaidan, gero, gai gehienak, harreman pertsonalekin lotuta egongo zirenez, bikotearen haustura zela horrelako arketipo erabilgarri edo eraginkorrenetako bat, egokiagoa izan zitekeena.

Ostera, emakumezko baten kontakizuna baino ez zaio helduko irakurleari. Zergatik?

Ahal zen neurrian bakarrikzeta moduan antolatze-ko eta ikuspuntu zehatz bat helarazteko hautua egin nuen. Ez nituen sartu nahi beste batzuk, horrek gehiegi korapilatzen zuelako kontaketa eta. Azken finean, hori zen momentu horretan buruan neukana.

Hori da zu pertsonaiaren barrunbeetan barnera-tzearen arrazoia?

Liburuaren beraren planteamendua bada zalantzan jartzea bikote-haustura horretara iritsi arteko arazoak zeintzuk izan ziren. Horrelako amorru-egoera batean egiten den bakarrikzeta delako agertzen dira hainbeste xehetasun. Ez dakit. Istorioak berak dakar nolakotasuna.

Hortik datorkio eleberriari *Erraiak* izenburua?

Hasiera batean beste bat zeukan, baina proposatu zidaten aldatzea. Bai, oso erraietako kontakizun bat egon daitekeelako izan liteke hori izenburua.

Ez bere buruaren ez beste inoren aurrean biluzteko lotsarik ez du erakusten pertsonaiak.

Gauza horiek guztiak dira gerora jendeak esan dituenak edo liburuaren atzealderako idatzi dituzten esaldiak. Ba, ez dakit. Ez nuen gauzen irudi erromantiko bat eman nahi, ezta irudi mitifikatu bat ere. Askotan gauzak diren baino politago aurkezten ditugu. Eta benetan hori izan daiteke benetako lotsa. Hala ere, hori da liburua irakurrita jendeak esan duena. Ez da nik zehatz-mehatz nire buruari jarritako helburua.

“**Uste dut hobe dela jendeak liburua irakurtzea eta bere hausnarketa egitea. Kontua ez da nik definizio bat ematea**”

Zuk zelan definituko zenuke?

Ez nuke definituko. Uste dut hobe dela jendeak irakurtzea eta bere hausnarketa egitea. Nik definizio bat ematen badut, definizio hori emango da ontzat eta bakartzat. Hori ez da kontua. Pertsona bakoitzak modu ezberdin batean irakurtzen du liburua. Eta horren arabera eraiki behar du bakoitzak pertsonai nagusiaren irudia.

Barne-bakarrikzeta honetan non geratzen da gizon-nezkoaren kontakizuna?


Nik kontatu nahi nuena zen pertsonaia horren bizi-pena, kontuan hartuta zelan dauden gauzak, hau da, gizonezkoen menderakuntza-ordenamendu batean bizi dela. Horixe interesatzen zitzaidan niri. Gizonaren istoriari ez diot garrantzirik kendu nahi. Baina, ez nuen muga hori igaro nahi. Printza batzuk agertzen dira bere inguruan dauden eta berarekin harremana daukaten gizonena. Baina ez nuen horri buruz luze idazteko asmorik. Liburu osoa litzateke.

Umorea ere ez zaio falta *Erraiak* eleberriari.

Umoreaena... Ba, ez dakit. Batzutan zuk zeuk ere ez dakizu zein punturaino den eraginkorra. Baina, momentu batzuetan, pertsonaiak bizi duena tragedia izango balitz bezala kontatzen dudanez eta horrenbesterako ez denez, nire ustez oso garrantzitsua da bertan umorea sartzea.

Kontzientziak astintzeko lehergailutzat ere definitu dute zure eleberria.

Gauza asko zalantzan jartzen dituen eleberria da, eta, gainera, lehenengo pertsonan kontatuta egonda eta jorratzen dituen gaiak jorratuta, irakurleari erraz egiten zaio momentu batean edo bestean bere burua zerbaitekin identifikatzea; bere burua ez dakit non edo ez dakit zertan ikustea. Orduan, alde horretatik uste dut oso zail egiten dela eleberria irakurtzea inplikatu gabe. Sartzen baldin bazara eleberrian eta



Sinopsia

Bikote haustura mingarri bat du abiapuntu eleberriak; emakumezko baten kontakizuna bakarrik iritsiko zaio, ordea, irakurleari, obsesio bihurtuta. Horregatik, ez ohiko intentsitatez barneratu da idazlea pertsonaiaren barrunbeetan, haren zokorik ezkutuenak, erraiak, agerian utziz, ez bere buruaren ez inoren aurrean biluzteko lotsarik gabe. Aldez aurretiko aurreiritzirik gabeko barne bakarriketa batean murgilduta, protagonistak ordura arteko bere bikote harremanak xehatuko ditu, inoiz utzi ez duten mamuen aurrez aurre jarritz.

Narratzaileak egurra banatzen du ezker-eskuin, eta egurra banatzen du bere buruarentzat ere, tonu ironiko nabarmenarekin. Egur ona, sutarako balio duena, esan gabe doa. Danele Sarriugarteren idazkera zorrotzak, irakurlea jartzen du beti jo puntuan, eta emoziozko erantzunak ez ezik, baita zentzumenezkoak ere eragingo dizkio. Kontzientziak astintzeko lehengailu gisa irakur daiteke eleberri hau.

hartzen badiozu tamaina, nik uste dut kontakizunaren momentu batean edo bestean konparatu egiten duzula bizitzarekin. Alde horretatik izan daiteke kontzientziari eragiteko gailu bat.

Bikote-harremanez gain, zeharka bada ere, ze gai jorratzen dituzu eleberrian?

Bikote-harremanena da gailendu den eta gehien egiten den interpretazioa, baina harremanak orokorrean hartu nituen nik. Bikote-harremanei arreta jarri arren, eredu gehiago agertzen dira: familiarekin harremanak, koadrila eta... lagunekiko sexu-harremanak, harremantzeko daukagun modua kalean, eta jendearekin berba egiteko jartzen ditugun maskarak... Orokorrean, emakume gazte bat izanda, garur egungo gizartean ze nolako gauzekin topatzen zaren kritikoki aztertzea ere bilatu dut.

Unai Elorriagak eta Karmele Jaiok ere lgartza saria irabazi zuten. Idazle gisa, euren parera heltzeko asmorik baduzu?

Unai Elorriagaz eta Karmele Jaiok ari gara. Igartza saria irabazi eta begira non diren orain... Ez dakit. Idazten jarraituko dut, bai, baina nik uste dut garrantzitsua dela bakoitzak bere bidea egitea. Zalan-tza handiak ikusten ditut nire bizitzan. Ez dirudi gizarteak jarraituko duenik munduratzaz azken 50 urteetan munduratu den bezala. Ez dakit. Idazten jarraituko dudala, bai. Baina ez dakit nire bidea zelan garatuko den.

2014an ikusi zuen argia *Erraiak* liburuak. Zelakoa izan zen sortze-prozesua?

Orokorrean gustura egon nintzen idazten, eta baneuzkan nahiko baliabide onak momentu horretan. Oso prozesu gustagarria izan zen. Eduki nituen horrelako momentu gogorrako batzuk, baina oso lasai egon nintzen idazten.

Hortaz, oztoporen bat aurkitu zenuen.

Ez. Esan dizudan bezala, denbora dexente neukan garai bat zen eta egon ziren horrelako momentu ba-

“Irakurleari erraz egiten zaio bere burua zerbaitekin identifikatzea. Zaila da eleberria irakurtzea inplikatu gabe”

tzuk nahiko nukeenak beste ere batera gertatu izan balira, baina ezin dira sartu oztopoaren kategorian. Zaplaztekotxo batzuk baino ez ziren izan.

Emaitzagaz pozik zaude?

Bai, idazlanarekin oso gustura geratu nintzen. Konturatu nintzen hori zela gutxi gorabehera helarazi nahi nuena eta gero asko zabaldu da, eta jendeak as-

ko hitz egin du liburuari buruz. Alde horretatik ondo dator. Gaia bera ez ezik, hori nola jorratzen dugun ere garrantzitsua izaten da. Inportantea da hori ateratzea kalera eta jendearengana.

Eta irakurleak pozik daudela uste duzu?

Zaila izaten da hori neurtzea. Askotan liburua gogoko izan dutenak bakarrik etortzen zaizkizu zer edo zer esatera. Irakurle talde askotan egon naiz eta orokorrean nahiko harrera positiboa eduki du. Batzuk erabat ados zeuden liburuan planteatzen ziren gaie-tako batzuekin. Beste batzuk, agian ez guztiz, baina uste zuten ondo heldu diedala gaiei. Eta, azkenik, beste batzuei ez zaie batere gustatu. Horietako gutxi-rekin topatu naiz. Baina ez, ez daudelako; baizik eta, orokorrean, jendea lotsa handiagoa ematen diolako gauza txarrak esateak; aurrez aurre egonda, gainera.

Itzultzaile ere bazara. Zer da zailagoa besteen lanak itzultzea ala norberak bere istorioak sortzea?

Bakoitzak baditu bere gauza onak eta txarrak. Itzultzerakoan askatasun gutxiago daukazu hein batean testu bati heldu eta horrek mugatzen zaituelako. Baina, aldi berean, horrek erraztasunak ematen dizkizu. Pentsatu behar duzu, esaldi osoa eman. Eta horrek ere sorkuntzatik asko dauka. Baina beti daukazu eredu hori. Garaiaren arabera izaten da. Batzuetan nahigo izaten dut itzulpen-lanak egitea eta beste batzuetan idaztea. ◀

Faduran prestatzen ibili da egunotan Lointek Team emakumeen txirrindularitza-talde sopeloztarra. Aurkezpen ofiziala Sopelan egin du.

Denboraldiari ekiteko prest da Lointek taldea

Flandria eta Valoniako errepideetatik bueltan, pasa den domekan Herrialde Katalanetan korrika egitekoa zen Sopelako talde profesionala, baina Trofeu Falles de Xativa lasterketa bertan behera gelditu zenez, Juanjo Zabalaren omenez Donostian egindako txirrindularitza-proban parte hartu zuen tropel laranjak.

Gauzak horrela, lehenengo hiru lasterketen ondoren, txirrindulariak ia aste bi eman dituzte Euskal Herrian, aldatas goran hasiko den denboraldiako prestatzen. Hilaren 11n abiatu zituzten lanak Fadurako Errendimendu Altuko

eta Teknikazio Zentroan, eta bertan, denboraldiako helburuak adostu eta osasun-azterketak eta ahalegin-probak egiteaz gainera, nutrizionistakaz berbaldietan parte hartzeko aukera izan dute. Bitartean, gogor ekin diote errepidean entrenatzeari, eta taldea aurkezteko denbora atera dute.

Talde profesionala

Hamabiko taldetik salbuespen bakarra Soline Lamboley izan da. Txirrindulari frantsesa Valoniako Le Samyn lasterketan erori zen, martxoaren 4an, eta pasa den barikuan, klabiku-



Soline Lamboley falta izan zen Kurtzion, gaixo zelako. © LOINTEK TEAM

lan ebakuntza egin behar izan zioten. Daborduko operazioaz errekupeztan dabil, ahalik eta lasterren bi gorpilen gainean berriz jarduteko.

Dori Ruanok zuzentzen dituen emakumeak hainbat alditan agertu dira jendaurrean. Algortara heldu ziren egunean bertan, eguenaztean, Bizkaia Bizkaialde Fundazioak Bilboko Miribillako frontoian antolatutako jardunaldian izan ziren. Eguenean Tolosara joan ziren, BPXport-eko teknikarien zerbitzura jartzera, eta, azkenik, bari-kuan aurkezpena egin zuten etxean, Sopelan. Kurtzio kultur etxean arreta

gehien batu zutenak azken fitxaketak izan ziren: El Salvadorko Evelyn Garcia beteranoa, eta gazte mailatik igotako Cristina Martinez eta Alba Teruel. Eura-kaz batera egon ziren iaz ere Lointeken ibilitako Sheyla Gutierrez, Belen Lopez, Lucia eta Alicia Gonzalez, Eider Merino, Aurore Verhoeven, Fanny Riberot eta Melody Leseuer. Gutierrez seigarren sailkatu zen Flandriako Omloop van Het Hageland proban, Ipar European taldeak lortu duen emaitzarik onena. Gainera, errioxarra emakumerik onena izan zen domekan, Juanjo Zabalaren omenezko proban. ◀

Gazteek kirol asko dituzte aukeran oporraldian

Getxo udalerriko 15 kirol taldek eta Getxo Kirolak udal erakundeak Aste Santuko campusak eskainiko dizkiete 3 eta 17 urte bitarteko neska-mutilei. Adin-tarteak aldatu egiten dira campus bakoitzean. Modalitate hauen artean hautatu ahal izan dute ume eta gaztetxoek: gimnasia erritmikoa, tenisa, errugbia, saskibaloia, igeriketa, futbola, irristaketa, skate-a, surfa, bela eta boleibola.

Campus denak martxoaren 30etik apirilaren 10era izango dira eta saioak goizez izango dira, Gobelan, Faduran, Barinatxe hondartzan edo belarontzietan. Kirol campusak eskolako opor-garaian antolatzen dira udalerriko «umeei aisialdirako aukera osasuntsuak eskaintzeko eta gurasoen kontziliazioa errazteko» helburuagaz, Getxoko Udalaren arabera. Ume bakoitzeko 20 eta 250 euro bitartean kostatzen da. Iaz, adin txikiko 800 lagunek parte hartu zuten. ◀

Campusak

Gimnasia erritmikoa

club_ritmica_getxo@hotmail.com / 685 545 032

Errugbia eta kirolanitza

getxorugby@getxorugby.org / 688 874 714

Saskibaloia

getxosaski@gmail.com / 657 773 523

Igeriketa eta kirolanitza

getxoibke@gmail.com / 663 871 318

Tenisa eta kirolanitza

685 751 688 / 609 400 742

Futbola eta kirolanitza

605 748 715 / 657 268 606 / 664 570 994 / 665 705 212

Irristaketa

eneko.g@clubpatinajelinea.getxo.com

Skate-a

skateskola21@gmail.com / 649 932 284

Bela eta surfa

info@pakeabizkaia.com / 944 916 632

info@lasalbajessurfeskola.com / 675 650 713

Boleibola

campus-voleigetxo@gmail.com / 654 738 779



Oporretako goizak pasatzeko plan berezia da campusena.

Atezain izateko campusa, atoan



Ribeirok neska-mutilei proposatzen dien helburu nagusia ondo pasatzea da. © ARMANDO CAMPUSA

Armando Ribeiro Athleticeko atezain ohiak bere izena daraman Aste Santuko campusa egingo du, beste urte batez, Sopelan. Apirilaren 7tik 10era egongo da zabalik, goizez, eta, daborduko, neska-mutilek inskripzioa egin dezakete. Campusean, olgetan ibiltzeko eta atezain hobeak izateko aukera eskainiko die Sopelako jokalariei beterranoak, horretarako Ugeraga kirol elkartearen eta Hirugarren eta Bigarren B mailetan dabilen atezainen entrenatzaile batzuen laguntza izango du: «Gura duguna da ondo pasatzea eta ikastea», dio Ribeirok. Campusak 125 eta 175 euro arteko prezioa dauka. ◀

Info+: 667 736 915 / Campusarmando.com



Arenas eta Getxo futbol-talde historikoek lehia sutsuan jardun dute urte luzez, etsaitasunetik ez oso urrun. Martxoaren 5ean, ostera, bi taldeen 27 jokalariek beterranoen lehenengo anaitasun-bazkaria egin zuten Artatza hotelean, «eremu neutralean».

© ARENAS ETA GETXOKO BETERANOAK

Getxoko lehenengo boxeo-saria, zapatuan

Zapatuan, 19:00etan hasita gaua egin arte gutxienez, Gobelako kiroldegia hartuko du Getxoko Boxeo Sariaren lehenengo edizioa. Eki-mena Itzubaltzeta / Romoko Bunk3r Boxing Team taldeak antolatu du, eta «leialtasuna, errespetua eta indarra» gaubeilako zutabeak izan daitezten gura dute kirol-ekintzaileek. Hiru baliorek dira Kepa Sabin boxeolari ohiak gidatzen dituen Bunk3r gimnasio eta kolektiboaren ardatzak.

Bunk3rregaz batera hainbat elkarte parte hartuko dute: Getxoko Izarrak taldea, Urdulizko Basakick, MT Boxing, Bil-

boboxing, Neko-Gym eta Mampo-Gym. Sarrerak taldeen egoitzetan zein Algotako Ugartena jatetxean eskura daitezke aurretik, harmailarako 10 euroan eta aulkirako 12 euroan. Gobela kiroldegian bertan karuago ordaindu beharko dituzte boxeo-zaleek, 12 eta 15 euroan, hurrenez hurren. Emakumezkoen arteko norgehiagoka bakarra izango da, Nekane Martin eta Ane Rodriguezen artekoa. Beste parte-hartzaileak honako hauek izango dira: Elorriaga, Amigo, Larrinaga, Abrego, Dominguez, Gomez, Gonzalez, Latorre, Rivero, More, Sortino, Luna, Uribe eta Kamiruaga. ◀



Mendi-martxa Plentzia, Gorliz eta Barrikan

Domekan, Plentziako mendi-ibilaldia antolatuko du Txixirri Patxarra taldeak. Urteroko ohiturari jarraituz, Plentziako udaletxetik abiatuko da martxa. Goizeko 8:30ean irtengo dira mendizale sutsuenak, eta Plentzia, Gorliz eta Barrika zeharkatzeko 18 kilometro egingo dituzte. Hamar kilometroko bidea 10:00etan hasiko dira. ◀

Waterpolo-campusa Leioan, katalanen ekimenez

Datorren apirileko 7tik 9ra Waterpolo Clinic Leioa izeneko campusa egingo dute herri horretan Euskadiko Igeriketa Federazioak eta Bartzelonako BIWPA waterpolo nazioarteko akademiak. Bertan parte hartu ahal izango dute 1996 eta 2003 artean jaiotako neska-mutilek. Hiru egun horietan etorkizuneko jokalariek

entrenamendu bi izango dituzte egunero Askartzako igerilekuan, eta Xavi Balaguer eta Joan Albella entrenatzaile katalanen gomendioak jasoko dituzte. Behar izanez gero, Askartza Claretoko Atalaia egoitzan lo egin ahal izango da. Prezioa 260 eta 350 euro artekoa da. ◀

Info+: info@biwpa.com

SARTU GURE WEB BERRIAN
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza

inprimategia

kopisteria



Partida guztiak irabazteko beharraz gainera, Romo Indupime besteen emaitzen zain egongo da. © ROMO ESKUBALOI TALDEA

Romo, Trebiño legeez

Romo Indupime eskubaloi-taldea kategoriaz ez jaisteko ahaleginetan dabil, Gaztela eta Leongo ligan.

Domekan, Itzubaltzetako Romo Indupime eskubaloi-taldeak hil ala biziko lehiari aurre egin beharko dio, jaitsiera ekidin gura badu, behintzat. Estatuko Lehen Mailako Gizonezkoen Ligaren 22. jardunaldiko partida jokatu du, eta norgehiagoka Leonen izango da, bertako unibertsitatearen taldearen kontra, Gaztela-Leongo erkidegoari eta inguruari dagozkien B taldeko partidak direlako.

Aurreko denboralditik datorkio kontu berezi hori talde uribekostarrari. Euskal eskubaloi-taldeak batzen dituen C taldean zebilen orduan. Denboraldia azken postuan bukatu zuen eta kategoria galtzeko egoeran ikusi zuen bere burua. Kantxan galdutakoa bulegoetatik eusteko erabakia hartu zuten, birritan pentsatu gabe.

Jaitsi arren, maila berean

Pako Bartolome presidenteak taldean daroatzen 30 urteetan egin duen operaziorik arraroenetakoa izan zen hura, baina guztiz legala, Espainiako Eskubaloi Federazioaren aholkuz: Lehen Mailan mantenduko ziren, baina beti ere Romo Indupime Gaztela-Leongo taldera pasatzekotan, bertan zegoen

hutsunea betetzeko: «euskal taldean jarraitzeko asmoa geneukan, baina Federazioak argi utzi zigun hori ezinezkoa zela. Eskaini zigun aukera bakarra talde horretan sartzea izan zen, eta guk onartzea erabaki genuen», kontatu berri du Bartolomek.

Berriro azkenak

Handik aurrera, Romo taldekoek kilometroak eta kilometroak egin dituzte, haien arerio urrunen aurka jarduteko. Valladolid, Madril, Oviedo, Santander edo Soria izan dira bisitatutako hirietako batzuk. Halere, bidaletan egindako ahalegin horrek ez du parean izan tamaina horretako kirol-emaitzarik.

Gaur Egun, Romo Indupime taldeko azkena da, iazko egoera errepikatzen dabil. Lau puntu besterik ez dauzka, partida bi irabazita. Lehenen-

Helburua oso argia da itzubaltzetarrentzat: gelditzen diren bost partidak irabaztea

go puntu biak lehenengo bueltaren amaieran eskuratu zituen, Valladolid deko unibertsitate-taldeari 27-36 irabazita, kanpoan. Azken biak, pasa den aste akabuan batu zituen Gobelan, Soriari ozta-ozta 26-25 nagusitzean. Garaipen horrek luzatu ditu Romoren biziraupen esperantzak, matematikoki salbazioa oraindino aukera bat da.

Gainera, Soriari irabazteak balio izan dio kategoria gordetzeko lehiakide zuzen horri kaltetzeko.

Izan ere, taldeko azken biek galduko dute kategoria. Itzubaltzetarren antzeko egoeran dabil Delicias Valladolid deko taldeetako bat, baina horrek zortzi puntu ditu, Romokoen bikoitza. Azken aurreko sailkatu horren gainean, Soriak 12 puntu ditu, eta handik bi puntura, 14 puntugaz, jaitsierara erortzeko arrisku gutxiago duten klub bi daude, Gerovida BM Arroyo eta Valladolid deko unibertsitatea.

Ezin galdu

Helburua, beraz, oso argia da itzubaltzetarrentzat: gelditzen diren bost partidak banan-banan irabaztea, bakoitza taldea zulora eroan dezakeen finala izango da-eta. Halere, mantentzea ala jaistea ez dago soilik Gobelakoen esku, kategoriari eusteko goitik hurbil dituzten lau taldeen emaitzek lagundu beharko baitute.

Hamalau puntuak gaintutuko dituzten taldeak Romo Indupimetik urrunegi geldituko dira, eta, beraz, Gerovida BM Arroyok eta Valladolid deko unibertsitateak partida bana irabazita Romoren irismenetik kanpo geldituko lirateke. Soriaren kasuan, partida bi irabazi beharko lituzkete, haiengandik ihes egiteko. Halere, Delicias emaitza onak izango balitu, kontu horiek porrotera bidaliko lituzke. Kasu horretan, Romokoek ez dakite bulegoetik konpondu ahal izango luketen. ◀



Garcia ahizpak Etxebarrin. © GETXOKO UDALA

Urrezko dominak taekwondolari getxoztarrentzat

Euskadiko Taekwondo Txapelketa jokatu zen Etxebarrin pasa den asteburuan. Ilargi eta Oihane Garcia Gaminde ahizpa getxoztarrek urrezko domina bana ekarri zuten bertatik, 21 urte azpiko eta kadete mailetan, hurrenez hurren. Ilargirentzat hirugarren garaipena da, Euskadiko Txapelketa gazte eta senior mailetan ere irabazi baitzuen aurreko urteotan. Aurten, 53 kilo azpiko kategorian parte hartu zuen Ilargik, eta finala Ainara Amezkua arabararren aurka jokatu zuen, oso parekatuta. Oihane 41 kilo azpiko mailan nagusitu zitzaion Izadi Calvori. Garaipenei esker, Ilargi zein Oihane Tarragonan lehiatuko dira zapatu honetan, Espainiako Txapelketan, 21 urte azpiko eta kadete mailetan. Bestalde, baliteke Ilargik maiatzaren 2an Cartagenan ere jokatzea, baina gazte mailan. ◀



Bizkaialdek elite-kirola babesten du. © BIZKAIALDE

Bizkaialdek berretsi egin ditu kirol-hitzarmenak

Bizkaia Bizkaialde fundazioak Bartzar Orokorra egin zuen pasa den astean Bilboko Miribilla auzoko pilotalekuan. Bertan, ia milioi bat euroko babesak (zehazki, 999.967 euro) onartu zituen 18 kirol modalitateko 29 talderentzat. Uribe Kostan, honako hauek dira onuradunak: Sakoneta gimnasia-kluba, Jolaseta hockey-taldea, Askartza Waterpolo eta Leioa Waterpolo igeriketa-klubak, Getxo Rugby taldea, Ugeraga kirol-elkarteko Lointek Team eta Goiherri sokatira-taldea. ◀

Sudokuak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe,ilara eta azpilauki bakoitzean.

						2		
5	1	7	9			3		
	8			1				
			8	6	1			
		6	5					
	2						3	
1			7				4	
9							6	2
						7	5	

							2	
5					1			7
3				7	8		1	
7								
9	2				5			
	6				9	3	5	
2		5	9					1
				1				8
				5	4			6

Denborapasa

Soluzioak

1	5	2	4	6	2	8	9	3
2	9	8	5	3	1	4	2	6
3	4	6	9	8	2	2	5	1
5	3	9	6	2	4	1	2	8
8	2	1	3	2	5	9	6	4
6	2	4	1	9	8	5	3	2
4	6	5	2	1	9	3	8	2
9	8	3	2	4	6	2	1	5
2	1	2	8	5	3	6	4	9

9	3	2	4	5	8	6	2	1
8	6	5	2	1	2	4	3	9
1	4	2	3	9	6	5	8	2
2	5	3	6	8	2	1	9	4
4	2	1	5	3	9	8	2	6
6	9	8	2	4	1	3	5	2
5	1	9	8	2	4	2	6	3
2	8	6	1	2	3	9	4	5
3	2	4	9	6	5	2	1	8

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Korrika egin aurretik azukre apur bat hartzea ona izan daiteke gihar-mina kentzeko, baina lau patxaran hartzeak ez dirudi metodorik onena.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Aurten bai. Ederki entrenatu zara eta prest zaude nahi dituzun kilometroak egiteko: «Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa, Korrika!».



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Ondo dago Korrikako kanta denak buruz jakitea, baina tabernetan den-denak kantatu beharra... Lagunak daborduko Amurizarenaz aspertu dira.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Lasai, martitzenean herrian egoterik ez baduzu, Erandion edo Bilbon harrapatu ahal izango duzu Korrika asteburuan.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Korrikako prakak, Korrikako kirol-jertsea, Korrikako elastikoa, Korrika zapatilak, buff-a... Dena Urepele-
ra eroanez gero, 24an zer jantziko duzu?



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lemoiztarra ez bazara ez duzu aitzakiarik, ia-ia zure etxe aurrean pasatuko da-eta! Martitzenean zapatilak lotu eta korrika egitera!



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Martitzena, hilaren 24a, egun oso ona izango da, betiko lagunak agurtu eta beste berri batzuk egiteko, beti ere etxean gelditzen ez bazara.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Korrikan nahi dituzun kilometroak egin ditzakezu, baina Erandion zure burua gelditu beharko duzu, trainerua zuk eroaten ez baduzu, behintzat!



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Kezkatuta baino harrituta, zaude. Akaso inori ez zaio gaur egun ardura aitaren eguna? Aurreko beste batzuetan, iragarki piloa jartzen zuten telebistan.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Korrika.eus webgunea behin baino gehiagotan begiratu duzu, Bilboko jaialdian zein taldek joko duen jakiteko asmoz.



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Kalera atera eta euskararen alde korrika egitea ondo dago, baino 25ean eta hurrengo egunetan ere gogoratu gauza gehiago egin daitekeela.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Ur beroa eta gatza lasaigarri onak izan daitezke Korrikan kilometro larregi eginez gero. Baina horiek baino hobea da aurretik lasaitasunez hartzea.

KONTXI
ZUZUBISKAR
URDAITEGIXA
Abituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93

PINTXO POTE
OSTEGUNETAN
12:00 ETATIK
15:00ak ARTE
Portu
Zaharra
Bar

Egunkariak

gura izanez gero,
etsera eroango dizugu
egunkaria!!!

prentsa eta aldizkariak

Algortako Etorbidea 78 - Tf. 94 491 27 34

Egunero, 24 orduz
www.hiruka.eus

saiazgetaria
HOTELA
Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com

Mungiatik helduko da euskararen aldeko lasterketa eskualdera, 11:40ak aldera. Hiru orduz, Uribe Kosta zeharkatuko du, ondoren Erandiotik itsasadarra gurutzatu eta Ezkerraldeako bidetik jarraitzeko.

Korrika

Martxoaren 24an Uribe Kostan barrena

IKER RINCON

Martxoaren 19an, eguenagaz, hasiera emango diote Korrikaren 19. edizioari Urepelen (Nafarroa Behea). Arrastiko 17:00etan hartuko dute Iparraldeko AEK-ko irakasle eta irakasle ohiek lekukoa, lehenengo kilometroa egiteko. Bigarrenegun, ADUR euskara elkarteko, Urepeleko Festa Komiteko, Urepeleko Herriko etxeko eta Xalbador eguna elkarteko kideek hartuko dute lekukoa, ondoren, hirugarren kilometroa heltzean Urepeleko Korrika batzordeari pasatzeko. Halaxe hasiko da aurtengo Korrika; hala, lekukoa eskuz esku, kilometroz kilometro eta herriz herri ibiliko da Bilboraino martxoaren 29an heldu arte.

Aurtengo edizioak Durangoko Azoka omendu gura du, Korrikaren mezuak dioen legez, «herri honek auzolanean eta elkarlanean lorpen handiak egin» dituelako, antolatzaileek azaldu dutenez. Azokak 50 urte beteko ditu aurten, hori dela eta, «euskalgintzaren eta euskal kulturaren bilgunea den azokari» gorazarre egingo diote.

Urepeletik Bilbora, martxoaren 19tik 29ra, hamaika egunez Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du, gau eta egun, hamaika herri bisitatuz eta tokiko auzotarrak *euskahaldun* bihurtuz; bi mila kilometro baino gehiago egingo dituzte euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka lagunegaz korrikan, lotu barik. Aurtengo edizioak 2.166 kilometro egingo ditu, Behe Nafarroatik Bizkaira Euskal Herriko zazpi probintziak modu batera edo bestera zeharkatuz. Gurea, Uribe Kostara, 1.229. kilometroan helduko da, hila-ren 24an, eta 56 kilometro egingo ditu Urduliztik Erandiora.

Aurrelan guztiaren ostean, korrika egitea dago-kigu orain, euskararen alde lekukoa auzotar eta la-gunen artean pasatzeko. Astez aste, Korrika Kultura-lak motorrak berotu ditu Euskal Herrian, baita Uribe Kostan ere. Eskualdean hamaika kontzertu, bertso-saio, antzerki eta bazkari egon dira; eta oraindino ere Korrika gurera heldu baino lehen, hainbat jardunaldiz gozatzeko aukera egongo da, baita euskararen aldeko lasterketa guretik igaro ostean ere: *Salam* umeentzako kale-antzerkia hilaren 22an, 12:00etan, Itzubaltzeta / Romoko Santa Eugenia plazan edota

Korrikak 2.166 kilometro egingo ditu Euskal Herrian zehar; horietatik, 56 kilometro gure eskualdean barrena

Trikileku taldeagaz dantzaldia, eta Korrikako arropa-salmenta hilaren 28an, Sopelako Udaletxe plazan, aurrekoaren ordu berean, besteak beste.

Euskahaldunak, Uribe Kostan

AEK-k antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa martxoaren 24an, martitzenagaz, helduko da Uribe Kostara. Mungiatik helduko da Urdulizera 11:40ak aldera, eta Gorliz, Plentzia, Barrika, Sopela, Berango, Algorta, Itzubaltzeta / Romo, Leioa eta Erandio zeharkatuko ditu Korrikak. Arrastiko 16:00ak pasata joango zaigu Barakaldo aldera, ohi den legez, itsasa-

darra traineruz igarota. Hala ere, azken egunean, hila-ren 29an, erandioztarrek Sondikatik hartuko dute lekukoa berriro ere, goizeko 07:00etan, San Ignazio sartuta Bilboko helmugarako bidea egiteko.

Martxoaren 29an, domekagaz, helduko da Korrika Bilbora, helmugara. Bertan, euskaldun ezagun batek Urepelen lekukoaren barruan sartutako meza irakurriko dute, ordura arte sekretupean gordeta egongo dena. Ondoren, euskararen aldeko jaia hartuko du Bizkaiko hiriburuak, bertaratutako guztien gozamenerako.

Lehenengo Korrika, Oñatitik Bilbora

Korrikaren helburuak euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta Gau Eskolen zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua batzea dira. Korrikak 1980an zeharkatu zuen lehenengo aldiz Euskal Herria, Oñatitik Bilbora. Orduetik, bi urterik behin egiten den euskararen aldeko ekitaldirik jendetsue-na eta garrantzitsuenetarikoa da, eta ordudanik, aurtengoagaz, 19 Korrika eta 35 urte igaro dira.

Aurreko edizioetan bezala, ehunka mila lagunek parte hartuko dute lasterketan, gure hizkuntza berreskuratzearen alde. Korrika Euskal Herriko jendar-tea astintzen duen gertakari bilakatu da, bi urterik behin egiten dena. Horretarako, antolaketan milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eratuta-ko batzordeetan, kanpainak irauten duen bitartean ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatuz. «Korrika-batzorderik gabe, kasu askotan ezinezkoa litzateke lan hori guztia aurrera ateratzea, laguntza eta babesa ematen digute», azaldu du Nerea Guija-

Egitaraua



Berango

Martxoaren 21ean, zapatua

12:00 Korrika eguna ospatuko dute frontoiaren aurreko partean: tailerrak, txistorra-jana, arropa salmenta...

Martxoaren 24an, martitzena

13:50 Korrika igaroko da herrian barrena.

Itzubaltzeta / Romo

Martxoaren 22an, domeka

12:00 «Salam» umeentzako antzerkia Santa Eugenia plazan.

Martxoaren 24an

14:40 Korrika igaroko da herrian barrena.

Gorliz

Martxoaren 24an, martitzena

12:00 Korrika igaroko da herrian barrena.

15:00 Korrika bazkaria, Gorlizko Jubis tabernan.

Algorta

Martxoaren 24an, martitzena

14:10 Korrika igaroko da herrian barrena.

18:00 «Salam» umeentzako antzerkia Telletxe plazan.

19:00 Gibelurdinek kale-animazioa egingo dute San Nikolas plazatik abiatuta.


19

rrubia Uribe Kostako Korrikaren komunikazio-arduradunak. Korrikaren antolakuntzak lan handia eskatzen du: «alde batetik, kilometroak egin behar dira, eta horiek, saldu. Horrez gainera, Korrikagaz batera doazen ekimenak ere sortu behar dira herriz herri; hamaika ekimen izan dira eskualdean eta hori oso lan handia da. Kasu batzuetan, herrietan sortzen diren batzordeei esker lortzen da Korrikak dakartzan lan guztia aurrera ateratzea», gaineratu du AEK-ko kideak. Kilometroen salmenta, Korrika Kulturala, bai-menen eskariak egitea, Korrika Lagunak bilatzea, kilometroak margotzea, materiala banatzea, arroparen salmenta... Lan handia pilatzen da euskararen aldeko lasterketaren atarian. Hori dena aurrera eroateko, AEK-ren eta Korrika Batzordeen arteko lankidetzak beharrezkoa da kasu askotan.

Korrika Euskal Herritik kanpo

Gurean egiteaz gainera, atzerrian ere babesak adierazten diote Korrikari, barbarako, Alemanian, AEBetan, Argentinan, Frantzian, Herrialde Katalanetan eta Eskozian. Martxoaren 19an abiatu zen Korrika Euskal Herrian, baina munduko hainbat txokotan aurrerapen gisa lehen pausoak eman zituzten: Parisen martxoaren 7an eta Edinburgon martxoaren 14an, esate baterako. «Oro har, ideia sortu eta Korrikagaz harremanetan jartzen dira; materiala helarazten zaie eta haiek arduratzen dira gainerako gauza guztiez», azaldu du Gujarrubiak. ◀

Info+: www.korrika.eus



Sopela

Martxoaren 24an, martitzena
13:11 Korrika igaroko da herrian barrena.

Martxoaren 28an, zapatua

12:30 Dantzaldia Triakilekuren eskumenez, Udaletxeko plazan. Bertan ere Korrikaren arropa salgai egongo da.

Urduliz

Martxoaren 24an, martitzena
11:38 Korrika igaroko da herrian barrena.

Plentzia

Martxoaren 24an, martitzena
12:23 Korrika igaroko da herrian barrena.
21:00 Herri kalejira Altzagan zehar.
23:00 Kalezulo gaztetxearen irekiera eta DJ Loro eta Asuranceturix Sound System.

Barrika

Martxoaren 24an, martitzena
12:43 Korrika igaroko da herrian barrena.

Leioa

Martxoaren 24an, martitzena
15:25 Korrika igaroko da herrian barrena.

Erandio

Martxoaren 24an, martitzena
16:04 Korrika igaroko da herrian barrena.

Martxoaren 29an, zapatua

07:00 Korrikak berriro ukituko du herria: Asuako plazan lotu dira; gero Erandio goikoa zeharkatuko du.



Sukaldean

Sasoiko berdel-sushia, Gorrondona txakolinagaz



OSAGAIK:

Berdela, azenarioa, kalabazina, arroza, nori-alga, soja-saltsa, wasabia, Gorrondona txakolina

MOTA GANE TXAKOLINDEGIA

Leioa-Unbe errepidea, 34. Akarlanda Parkea (Erandio)
Tel.: 94 467 00 07
www.txakolimotagane.com

tsasotik mendira egingo dugu salto oraingoan. Algortako Portu Zaharra atzean utzi eta Erandio-ko Unbe parkera hurbildu gara; bertan leku ezin hobean dagoen Mota Ganera, hain zuzen ere. Itsasoa atzean utzi dugu, baina txakolindegia hone-tatik Kantauriko kolore urdina ikus dezakegu, zelai berdeen akabuan. Kresala ere badago hemengo su-
kaldean, sasoiko berdel-sushia ekarri baitugu orrio-tara. Horrez gainera, txakolindegia batean gaudenez, mokadu horri laguntzeko zer hoberik txakolin on bat baino? Bada, Gorrondona txakolina aukeratu dugu, sushi honegaz ezkontza ezin hobea duelako. Sushia egiteko, lehenik eta behin berdela ondo garbitu eta marinatu dugu. Horren ostean, arroza egosi eta

astiro-astiro hoztu beharko dugu. Ondoren, arroz ozipina bota eta eraikitzen hasiko gara. Horretarako, berdela, kalabazina eta azenarioa arroz artean jarri eta nori-algaz biribilkia egingo dugu. Sushiagaz batera, wasabi apur bat daroan soja-saltsa jarriko dugu, lagungarri. Adi wasabiagaz, asko erabiliz gero sushiaren eta txakolinaren arteko oreka apur daiteke eta! Era berean, soja-saltsa gatz gutxikoa izatea ko-meni da, mokaduaren eta kaldoaren arteko ezkontza behar bezalakoa izan dadin.

Aipatutako pintxo aste akabuetan dasta daite-ke, 2,50 euroren truke, edo 4 euroren truke txakoli-nagaz. Hala ere, hilaren 19tik 26ra bitarteko asteen ere eskainiko dute Mota Ganen. ◀

faceguk



Zer deritzozu
Pinosolo auziari?

OLAIA BILBAO

LEIOA



Egin dute gura izan dutena, gu-
ra izan duten moduan. Horrelako
azpiegitura batek denentzat izan
beharko luke. Diru publikoa enpre-
sa pribatuen esku utzi barik.

ITZIAR SINDE ETXEBARRIA

BILBO



Nahiko kakaztuta egon da dena,
eta oraindino gauza asko azalera-
tuko da horretaz eta beste hainbat
auziz hemen. Hanka-sartze itzela
izan zen: ustelkeria kasu bat.

ASIER IZQUIERDO AGUILERA

LEIOA



Leioako EAJk darabilen kudeaketa-
ren adibiderik argiena da. Iceber-
garen tontorra da, euren gestio-
ereduan babesak eta ustelkeriak
duten garrantzia islatzen duena.

IZABA BUROT LUZAIDE

LEIOA



EAJk 35 urte daroatza gobernuan
herrian, eta genekien salerosketa
behingoz atera da apur bat argira.
Herritarrok gura duguna da argita-
suna, eta amarruak bukatzea.

ARANTXI SARASOLA LARTATEGI

LEIOA



Udalak arkitektura-enpresa bati
faborezko tratua eman zioneko
zantzuak daudela esan zuen udal
ikerketak batzordeak. Epaitegieta
muturreraino argitu behar da.

Dastaketa fitxa

TXAKOLINA: Gorrondona.

UPELTEGIA: Doniene Gorrondona Txakolina.

MAHATSAK: Hondarrabi zuri,
Hondarrabi beltza eta Mune mahatsa.
Etxean landutako legamia bereziakaz
hartziduta; Bizkaiko Txakolinan
aitzindariak.

DASTAKETA: Kolore hori oso argia
inguru berdeekin. Baltsamikoa, fruta
zuria eta hezur fruta ukituak dituena.
Orekatua, ardo atlantikoaren nortasuna
duena eta Bakioko mahastiak dituzten
ezaugarriak mantentzen dituena ahoan.
Gaurkoan berdel sushiarekin ezkontza
ezin hobea duena.



HIRUKA Koop. elk.

Helbidea: Martikoena 16, 2. solairua 48991 GETXO

e-Posta: hiruka@hiruka.eus

Posta Kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Erredakzio-burua: Irantzu Sagarrinaga

Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen
Nafarrate, Inigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres

Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri

Publizitatea: Erika Martinez

Kudeaketa: Ziertza Merino

Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA

Lege Gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

CC-BY-SA



Erakunde laguntzaileak:

